

anaitasuna

1979. EKO AZAROAREN BIGARREN HAMABOSTALDIA. 392. ALEA. 60 PZTA.

le *SBLANAK BORROKAN*



pr *RUDENCIO HUALDE*
1879-1979
erronkarieraren galera



fr *RANCISCO ITURRINO*
bizia eta obra




ik *USKA SAILA*, errealitate
sendoa
euskal zineman





CAJA LABORAL. *Euskadiko*
Kutxa 



aurkibidea



4. Artikuluburua
5. Diskoak hamabostero. K. Arko.
6. Baratzezainak goserik daudela. M.L. Uhaitze
8. Ohitura berrien bila. X. Kintana
9. Errenterian bortxaketa politikoa. I. Urtasun.
10. Lesbianak borrokan. I. Urtasun
12. Arabako Euskalduntze-Alfabetatze. Koordinakundea aurrea. K. Mendia.
14. Hamabost egun hankaz gora. Bixer
18. Algeriar askapenerako iraultza
21. Frantziako zenbait politikari urduri. M.J. Esteban
22. Hego-Koreago afari odolezkoa. M.A.
25. Karibea sutan. K. Santisteban
26. Daniel Landart: Zirrargarritasunaren garaitia. A. Eguzkitza
28. Prudencio Hualde Maio, ehun urte. J. Sarrionandia
30. Liburuak. J. Sendagorta
32. Ikuska saila: Errealitate sendo bat. X. Portu
34. Francisco Iturrino. J. Sendagorta
36. Gudu-antzeak: filosofia eta bizia X.G.
40. Gramatika. J.R. Etxebarria
42. Humorea. Astaitz.



anaitasuna

KOORDINAKETA

J. R. Etxebarria

ERREDAKZIOA

J. Llerandi, T. Trifol

IDAZKUNTZA KONTSEILUA

J. Agirreazkuenaga, Andolin
Eguzkitza, J. R. Etxebarria,
Miren Izagirre, J. Llerandi,
E. Martin, Joseba Sarrionandia,
T. Trifol, I. Urtasun, I. Zabaleta

ARABA

E. Knorr

BIZKAIA

J. Llerandi

GIPUZKOA

I. Urtasun, A. Oiartzabal

IPARRALDEA

M. Ianatua

NAFARROA

I. Zabaleta, B. Zabaleta

NAZIOARTEKOA

A. Eskisabel, M. J. Esteban, T. Trifol

IDAZLE ETA LANKIDIAK

J. Artzelus, X. Gereño, J. M. Torrealdai, X. Kintana, A. Eguzkitza, P. Agirrebaltzategi, Mariasun Landa, J. L. Alvarez (Txillardegui), J. Mendizabal, E. Entzondo, S. Laffite, M. Pagola, J. Sarrionandia, J. J. Bakedano, Natxo de Felipe, F. Alaña, J. Etxeberri, B. Barandiarán, K. Arko, J. Iturbe, M. Otazurialde, J. R. Bilbao, J. M. Arzubiaga, K. Santisteban, B. Atxaga, J. Idigoras,

FOTOGRAFOAK

Imanol, R. Zarrabeitia, A. Alday, Txaber

MAKETAPENA

R. Zumalabe,

KOMIKIAK

A. Olariaga, I. Lauzirika, B. Zia, X. Etxenike, Gentz, Monty

MARRAZKILARIAK

Ttua taldea

PUBLIZITATEA

ETA

HARPIDETZA


J. Idigoras, A. Uria

ANAITASUNA

Zabalbide, 68-entlo. BILBAO-6
Tfnoa: (94)4335808

MOLDIZTEGIA

Lege Gor. D. L. BI-1753-1967



UCD-ren Langilearen Estatutua

Langilearen Estatutuak bere papera jokatzeko du Erreformaren prozesuan, hots, irtenbide burjes baten bidez, krisi ekonomiko eta politikoren gaitzetea posibletuko duen erakundetze juridiko-instituzionala osotzea.

Helburua, ugazaberiak premiazkoztat jotzen dituen eskabideei erantzutea da, kaleratze librea, patrioengandiko hixtea, plantilen flexibilitatea, etab. hauek eta, negozialdietan langileen ordezkariak motzatzeko, sekretupean erabakitako neurriek, atzerapen garrantzitsua suposatzen dute libertate indibidual eta kolektiboen arloan, eta honela, Gobernuari kondiziorik hoberenak eskaintzen dizkiote, bere Ekonomi Hestutasuneko neurriak inposa diezazkigun, Erreformaren finkatzerako halabeharrezko kondizioa dena.

Estatutu honek Erreformaren prozesuarekin dituen inplikapenak beraz, nabari dira, proiektu honen ostean Konstituzioa dagoelako, eta Erreformaren laguntzaileek gura dituztenak esan arren, harekiko duen koherentzia erabatekoa da; bere eginkizuna, lehenago Konstituzio hartan onetsiak izan ziren arazoak berak, lan harremanen mailan, juridikoki zehaztea baizik ez baita: Merkatu Ekonomia Librea, sindikatzearen mugaketa, patrioengandiko hixtea, etab.

Langilearen Estatutu hau, askoz ere, Primo de Rivera-ren garaiko "Langilearen Kodigo" hartatik, espainol erakunde juridikoen sorturiko araubiderik murrizgarriena da.

Eta gainera, Euskal Herriko eta beste naziootako langileei, beren Lan Harremanetarako Barrutia izateko ahalbidearen ukatzeaz, autonomiei erakutsitako mesprezuaz, Langilearen Estatutu hau edozein klase eta autonomi ikuspegitik begiraturik, gaitzestekoa gertatzen zaigu.

URTEBETEKO LABURPENA

Xoxoa-Osoa X-11.114

Une hontan disko argitaratzaileak "arrakasta haundien" beren album handiak prestatzen ari dira, batzu azken denboraldian diskoetxe beraren barnean diskogintza izan denaren bilduma soilak direlarik. Eguberriak, edizio hauetarako data-buru gisa, garairik hoberena dira, urte buruan disko merkatua salmenta kopururik handienetara iristen baita. Euskal Herriko merkatu potentzialki txikian honelako "collage"-disko hauk ez dira behinere izan, irabazkin ugariak eskura ziezazkiekeen zerbaitentzat diskoetxeek kontsideratuak, halako disko kopuru baten kanpaina honela bururatzu bestalde. Zergatikoak, gure diskalanak, sormen artistikotik beha, uzten dituen dinamika eta ekite posibilitate eskasetan aurkitzen dira, bai eta ere argitaratutako erreferentzi kopuru urria dela eta, urtelan osoa agerteraz dezakeen disko bat betetzeko adinbatekoa doi. Xoxoa, lanerako gaitasun bortitzak eta gorakada arinak aski ezaguterazitako disko argitaratzaileak, mintzatzen ari garen horrelako albuma aurkezten du oraingoan. "Xoxoa-Osoa" izaten ahal da "arrakasta haundi" bat, baina ororen gain ikusi behar dugu, disketxe honek, bere ezarkuntzatik gaurdainokoa euskal mugimendu musikarari ekarri dion berriaren bilduma gisa. Bestaldekik, "Xoxoa-Osoa" ba da, azken urte hontan irten den berria baino goraxeagokoaren agerterazpena, eta zenbait traba egunoroko arlo hontan, haientzat sormen musikala dena berau, hautatu dituzten bestelako bideak ere bai.

Diskoa ikusiz, aurrean jaiotako talde bat dakusagu, herri kantaren lan errealitatek freskoenatarikoa bihurtua: Izukaitz ("Zikiro Beltza"). Itoitz ("Lau teilatu") aitzindari izan da, euskal rockari hildo melodiko hagitz pertsonala markatuz. Bestaldekik



Koska ("Zaramagako boza") eta Errobi ("Alboka", "Kanpo"), rockarien zikloa hersten dutelarik. Haizea, "Hontz gaua" albumarekin birsortutako taldea eta hartarik "Anderea" barne hartzen du antologia honek. Gainera, Txomin Artolaren "Ez naiz espazioa" folk-rock biziz bete. Aitzitik, fanfarreen fenomeno ageri da, Fanfarre Xut, teknikoki hobekien grabatutakoaren "La Bota" gaiarekin.

Azkenburuan, bi sopsresa haundi, halanola Oskorri, bere album bikoitzaren "Bizkaiko aberatsak" herritar agerterazpenarekin, eta gorapen handia ematea espero zaion ahots berri bat, Itziar ("Harri eta Herri").

Imanol, Urria, Sakre eta beste zenbait salbuetsiz, aurtengo euskal diskogintzarik interesgarriena batera jotzen du, egun mintzatu garen disko honek.

Diskoak hamabostero

Txomin Artola
"Ttakun ttakun"

Txomin Artolak beharrez eta nabariki itxuratu behar du, diskogintzari sentimenduak hurbilerazten dizkion gizona. Eta hau inoizkorik gainen da dabilzan denboretan, teknikasunaren manuz eta produktioaren zeinuaz, sekulakoa baita musikariaren zehaztasuna.

Txominen ahotsak dohain bitxia dauka, nik zer dakit emozioaren nolako eraginei loturik, aldean eramatea lortzen duena. Gainera, gustagari den estetika dauka, hari hurbilgarri eta haren adiskidegarri.

Kantak ahots horri loturik doazkio eta fidel eta zintzo zaizkio soiltasunean eta apaltasunean. Saxoniar bokazio nabariz herri moldeen arauera taiututa, honako kanta hauek, Txomin den kantari tankerak ematen dien tratamenduaz gozatzen dute.

Zail gerta liteke, lineartasuna eta monotonia antzematen dituen disko batean bertuteak aurkitzea. Bere baitako singletasuna ezagutzaradatsa da. Honexengatik, Ttakun ttakun-ek ba dauka uneak, non eta esperientzia duela erazagutzera irits baitaiteke eta lelo baten arauera kantazearen kontzeptu hotzetik urrutirago baitoa, biziki egokiro nabarizera iritsirik. Asko-askotan baliatzen da kitarra akustikoz, funtsezkoan finduta. Ez dio musika jai, indarrez zoraturiko parranda denik; halere, barnetasunaren herabe, begiramentutsu da. Goiburu gisa, funtsezkoenaren hastapena jasotzen du.



Violoncelloa, jotze apurra eta zenbait musikatresna solt, disko honen xarmantaren lagungarri dira. Baina, baitere, elkarrarremanak dituzten textuei fidelitasunaren hastapenaren ihardule gisa burutzen dute, Gotzon Aleman, minbiziak jotako gipuzkoar poeta gaztea zenari eskaintza eta oroitzapen desiraz.

Asmoa interesgarri. Gainera bere atarramenduek, agian egiten duen ororentzat Txomin Artola baitan barrondatzen ditugun oharren eta soiltasun berek hastandu dukete, nortasunezko eremura, pertsonaltasun eksklusibistara, berezkoitasunera, bertan merkatal planteiamenduak irtenbiderik ez daukalarikan.

Hau, agian, diskoan minoritari, gutientiar gisako zerbaitentzat ageri dateke. Dabilzan denboretan, halabaina, ba dakizkigu majoritariaren, gehientiarren soslaiak, honek dituen elikatzailak eta berauen helburuak.

Hitz laburretan, disko atsegingarria, azala ere delarikan.
K. ARKO.

BARATZEZAINAK DIO GISCARDEK

Egun hauetan eskuratu baitugu "Le Sillon" departamenduko nekazarien kazeta, berri lazgarriak agertzen dizkigulakotz honek, uste dugu hemen zerbaiten esatea beharrezkoa dela. Horixe, nekazarietaz hitz egiten digu Eñaut CACHENAUT adixkideak, hobeki esateko artzain-laborariak eta artzainak laster kondenatuak izanen direla azaltzen digu.

Artikulu osoak editorial berezi baten garrantzia hartzen du. Bakoitzak ikus dezake beraz problemaren larritasun eta seriosotasuna. Nekazariak berak, usaian hain mugiezina, hasi zaizkigu arranguratzten; "bildotsak 7 F baizik ez duela eginen kiloko, egia ote da?"

Hona esana arazo osoaren mamia. Dakigun bezala, Iparraldeko nekazaritzaren emaitzarik nagusia hazkuntza da, bildotsa, ahatxea, urdea etab... Baina ororen artetik ardi hazkuntzaren saila dugu lehena, berari datorkion dirua edo budjeta, laborariak, horretatik egiten du. Dirubide hori ekenduz geroz, "nola biziko naiz?" dio baserritarrak.

Eñaut Cachenaut-en eritziz, "Urtarrilaren lehenetik (78) honara, muga europar noei zoazkioten lege zaintzaileak amaitzen dira lege berri batzuren aitzinean. Muga nazionalen irekitzea gertatuko da, behintzat ardi haragiari dagokionez, horretatik landa anglesen eta Neo-zeelanda-ko produkzioak sartuko dira merkatugintza mailan 10-11 F-tan (adibidez, Frantziak 20-21 F-tan saltzen ditu bereak). Hauk ditugu Bruselako komisioak proposatu norabide berriak, Ministrariaren Kontseiluak bozkatuko eta onhartuko ote ditu?... Orduan litzateke Iparraldeko laborantza eta artzain-laborarien heriotze segurra. Gainera, Cachenaut-ek dioenez, entsegu hau ez da lehenbizikoa, jada, 1978.ean, Urtarrilean, Apirilean, Maiaztean, Urrian eta azkenik Ekain honen 20an, Europako teknikariek egin ohi dituzte beren zazpi ahalak. Hain zuzen, gertakari eta jarrera hau osoki jakingarri



GOSERIK DAUDELA!

zaizkigu. Teknikalariek nahi dutela Europa egin, bistan da. Baina zertako? Noren interesentzat nahi dituzte merkaturgintzako muga nazionalak ezeztatu?...

Jendeentzat, langileentzat, elkar sendotzeko, elkarganatzeko diote. Baina ez gara aski tontoak holako eleen sinesteko. Bai, gatu horrek ba du beste buztanik! Eta nolakoa! Halabaina, ez ote da garbi ageri multinazionalen jokoa dela muga nazionalen traba haustea eta horrela librekiago, azkarrago presentatzea merkaturara? Lastertasunaren, merketasunaren (izanikan ere janari kimikoa) zeingehiagotasunean zer balio du euskal nekazariaren produkzioak? Guziok dakigu kalitateak ez duela kontsideraziorik (ez aski), ez daukala oraino merkaturik, zer balio du orduan janari onaren egiteak?...

Azkenean, merkatu europako kapitalista horretan, euskal hazkuntzak ba al du oraino xantza izpirik?...

Cachenaut Jauna ez da hainbat optimista eta gu, honekin bat gatoz. Euskal hazkuntzak ba ote du beste esperantzarik Euskadin baizik, euskal merkaturik baizik? Hegoaldeko langileak ez ote lezake gogotik jan janari sanoa eta kalitatezkoa? Dakusagun bezala, posibilitateak ba dira mila, guzientzat, bizitzeko posibilitateak. Egiazko eginbeharra dugu, dudarik gabe, posibilitate horien eskuratzea eta euskaldundutzea.

Anartean, zer gertatuko zaie Iparreko baserriek? Oraino zenbat urtez utziko dituzte? Zenbat iraunen dute? Hots, gaurko manerari jarraituz xantza asko dago, egungo ez bada biharko izanen dela, egiazko ezin altxatze azken hura. Orain duela zenbait hilabete, doi doia, Giscard-en ministrari batek (edo berdin beronek?...) laborariei egin mintzaldi batean zioen "Vous êtes les jardiniers de la nature". Egia diok, Giscard, baina nekazaria, baratxelari bat baldin bada, zergatik darabilak joko hori? Zergatik nahi duk baratzezaina goseari hilarazi?...

M.L. Uhaitze

Anartean, zer gertatuko zaie Iparreko baserriek?



Behin batean Agustin...

LARZAC-en gara.

Hamaikak eta erdia, gau iluna eta sa-soinekoa: hotza.

"La Blaquière" deitu herrixkara ba dator kamioi bat soldaduz kargaturik. Agustin ez da beldurtzen, ez doa zenbait bezala erbia bezain laster. Agustinek, hauzoak deihadarkatzen ditu eta hona, denak, bat falta gabe ba datozkiola. "Lagunduko zaitugu". Lagunduko zaitugu! Ez gara gu erbia bezala: lasterkalariak!

"Jendarmak nahi ditut hemen!" dio Agustin kuraiosak.

"Bai! Jendarmak deizkitzue, etor ditelal etor ditela! Egin diezaizutela pape-ren kontrol bat!"

— Jendarmak ez zaizkio etorri. Baina berrogei ta hamar soldadu haserratu eta basatu. Jo makila! Jo! Beti jo!

Azkenean, animaleek bezala ihardun zuten... Neska gazte bat zauritu, laborariak uspelkatu, errespetua hondatu. Eta hori... demokraziarik haundienean, hospetsuenean, aurreratuenean, etsenplugarrienean: Frantses demokrazian.

Horrela dihardute demokrazietan, animaleak bezala... jo eta jo, beti jo...

Etxean ahantzi du, hantxe, Agustinek, suziloaren gainean, harma zintzilik...

Gaizo Agustin! Gaizo gu!...

LARZAC-en bezala, EUSKADIN GARA.

M.L. Uhaitze

OHITURA BERRIEN BILA

Gizon guztiak lehengo ohituren bitetik ibili izan balira, gaur, segur asko, larrugorritan geundeke guztiok, hori aurrean egin ez zelako atxakiaz, sekula ezer asmatu ezinik.

Horrelako zerbait gertatzen ari zaigu egungo euskaldunoi. Oraintsu arte ukatu zaizkigun tradizioak berreskuratzeke nahiaz, maiz, berrikuntzak egiteaz ahanzen gara eta hoik dirateke, izan, biharko tradizioa moldatu beharko dutenak, Herri honetan ohiturak zein urte gutxitan tradizio bilakatzen diren ikusita.

Asmamenaren txokoa atera zigun behiala Joxe Azurmendik eta hura burutapen oso ona izan zen. Bide horretatik doaz, lagun gehiagoren zain, neroni etorri zaizkidan bi ideiak.

Euskara demokratikoa

Euskaldunen artean erdaldun bat gertatzen denean -berau basko abertzalea izan arren- euskaldunok, gizabideagatik, haren aurrean erdaraz egitera beharturik sentitzen gara. Modu horretaz, Txillardegik bere **Euskara eta matematika** artikulua famatuan ederki frogatu zuenez, aski da ondoan erdaldun bat izatea hamar euskaldun erdaraz mintzo daitezene, eta tarteko erdaldun -maiz abertzale- hoiengatik gure hizketa gehienak erdaraz gertatzeko. **De facto**, beraz, gizabidezko ohitura horretatik, euskaldunok ezin gara geurean euskaraz mintzatzeko omen dugun eskubidez, baliatu.

Arazo horri buruz pixkat pentsatuz, eta lehen pausotzat behinik behin, irtenbide logikoa hauxe litzatekeela esango nuke: demokratikoki, gehiengoaren arauera, mintzatzea, eta bi euskaldun eta erdaldun bat dauden tokian, demokrazia hutsez, elkarrizketa euskaraz eramatea. Zer esanik ez, jakina, euskaldunen kopurua ere haundiagoa denean. Horrek, euskaldunoi euskara "praktikan egiteko" aukera egiazkoa eskaintzeaz batera, erdaldunei ere ustegabeko mesedeak ekarriko lizkieke, eta, beraz, eskerturik egoteko arrazoi franko edukiko.

Lehenbiziko arrazoia, noski, zera litzateke: euskaraz entzutean, beti zerbait ikasiko lukete, belarria hizkuntzara pixkana egin, egunero, entzunaren entzunaz hitz bat edo beste, esaldiren bat ere pittinka, ikasiz. Bigarrenik, lagunek egiten dutela eta, berak ere euskara ikasteko motibazio eragikorra eskaintzen zaio, beti erdaraz eginez gero sentituko ez lukeen premia berau. Behin euskaraz ikasten hasi eta gero, gainera, eskolatik kanpoan praktikatzeko bidea ere leukake, eta horrela arinago ikasi ere bai. Honen kariaz euskara, bere katakunba girotik irten eta

gizarte harremanetan erosoago legoke, azken buruan guztiok nahi omen duguna.

Zuhaitz landaketa

Protestaka gabiltza euskaldunok geure mendi-basoen belztasunagatik, pinu mardarikatuen nagusigo zapaltzaileagatik, gure lehengo haritz, pago, gaztaina, lizar, urkiak eta, desagertzen ari zaizkigun artean. Lehen, egia da, Diputazioek hartzen zuten, ebakitakoen lekuan, zuhaitz hoi lekuan landare berriak sartzeko ardura, herrialde bakoitzeko lagunek, hauzalanean, noizbaitero landatuz. Eta hori oraintsurarte ere egin izan da, baina lehengo zuhaitz jatorren ordeaz, pinuak sartzeko.

rako, eta lana errazteko, zona osoak-ur, eguzki, ipar-hego eta haizeen arauera-sailez banaturik egon beharko luke, zuhaitz bakoitza ongienik haz litekeen tokian landatzeko, moeta bereko landareekin oihantxoak eginez. Mintegietako zainek, zuloak aurretik prest edukiko litzateke, non sartu jakiteko, edo eta zuloak non eta nola egin behar diren azaldu.

Mila okasio presenta daitezke zuhaitz bat landatzeko: ume baten jaiotza ospatzeko, aitamabitxi edo gurasoen eskuz; semealabekin mendira egindako ibilaldia-horrela txikitatik natura maitatu eta errespetatzeko exenplua emanez; herrira kanpoko lagunen bat datorrenean, berak bere eskuz zuhaitz bat landatzeak ez dio oroitzapen txarrik utziko, eta bai,



Bilbo gaineko mendiak gaur biluzirik daude, bihar, nahi badugu, pago, haritz eta gaztainez jantzita egon daitezke.

Diputazioek, noski, aski erraz eman litzateke gaur agindu berbera, holako edo halako tokietan mendiak birlandatzeko, baina lan horretan hobe litzateke guztiok esku hartuko bagenu, ondorioa, inork egindakoa barik, guztion ahaleginen fruitu izan ledin.

Idea, horretara, zera litzateke: Diputazio -edo eta udalerrri- bakoitzak bere lurraldeetan arlo batzu zeregin honetarako uztea, Euskal Herriko zuhaitzak landatzeko alegia, pertsona alokatu baten ardurapean. Leku hoietan haritz, pago, gaztaina, lizar, urki eta abarren mintegiak leudeke, eta bisitariak, aukeraturiko landareagatik honenbeste ordaindurik, beren eskuz zuhaitz bat -edo gehiago- landatzeko era izango lukete. Asmo horretara

segurki, handik urte batzutara lekua berri bisitatzeko gogoaz; ikastoletako haurrekiko ibilaldi kolektiboak; lagun bateganako maitasuna adierazteko; herriko bisitalari hospetsuen izenean ere bai...; hainbat eta hainbat izan daitezke, nik usate, gure mendiak apaintzeko dituzkegun atxakiak.

Zuhaitzak landatzeagatik pagatuko litzatekeenaz bestalde, mintegiko eta konterbaziorako zain arduradunak ordaintzeko beste diru aterako litzateke eta horrela, lan postu batzu sortu eta mantentzeko bidea ere bai.

Ez al dute gure ondorengoek merezi guk berengatik, gugatik aurrekoek ez egitea deitoratzen duguna egin dezagun? Hor dago idea.

Xabier Kintana

ERREENTERIAN BORTXAKETA POLITIKOA



*Pistolen indarrez
ere eta familiaren ideologiaz
itaunketa bat
egin eta gero,
bortxatu egin zuten*

Hilak 14ean, Errenterian, 16 urteko neska bat bortxatu zuten. Hainbeste emakume bortxatzen dute egunero ezen, kasu konkretu baten berri ematea zentzurik gabe ager daitekela alde batetik. Dena dela, oraingo hau textuinguru bereizi batean jazo da.

Neska, bere senargaiarekin zihoan Versaillesetik eta bi tipo atera zitzaizkien bidera. Mutila alde egitera behartu ondoren, neska hartu eta Lezoko kaletara eraman zuten. Han, eta beti pistolen indarrez, bere eta familiaren ideologia politikoaz itaunketa bat egin zioten.

Gero, bortxatu egin zuten.

Gertakizuna salatzen bazuen hil egingo zutela ere esan zioten, beste hainbat astakeriaren artean.

Neskatila ez zen ikaratu ordea, eta udaletxera joan zen guztia azaltzera. Abokatu bat ekarri zioten segituan, kasu hauetan beharrezkoak diren pausoak emateko.

Udala, Amnistiaren aldeko batzordea eta beste herritar asko hasi ziren eraso hau zapuzten.

Errenterriko emakumeen taldea, jakin bezain agudo bildu zen, txartelak egin eta manifestapen batera egin zuten dei iganderako.

BORTXAKETAREN AURKA MOBILIZAPENA...

Hau izan zen kontsigna nagusia taldeko emakumeen proposamenez.

Manifestaldira jende asko joan zen, 2 edo 3.000, era guztietakoa, zaharrak, gazteak, emakumeak, gizonak...

Baina, inpotentzia zen han sentitzen genuena. Jendeak ez zuen ia oihurik segitzen, haserrerik ere ez zen nabaritzen, eginbehar bat betetzera joan bagina bezala baina honen ondorioetan konfidantzarik gabe.

ERREPRESIO POLITIKOA ERE, EMAKUMEOK BEREIZIKI SUFRITU BEHAR

Ez dakigu nortzu izan ziren, baina datu guztiek polizien gauza izan zela pentsarazten digute.

Bestela, nola pistolak?, zergatik itaunketa politikoa?

Horregatik, feministok, politika egiteagatik gartzelatzen eta zigortzen dituzten emakumeen defentsa hartu beharko genuke gure eskuetan, preso eta emakume bezala defendatu behar ditugu, iraultzaile eta emakume bezala zigortzen baitituzte.

Hau idaztean, Marga Odriozola Martutenen dago oraindik, ez dakigu noiz arte, eta ez dugu ezer egiten.

Izaskun Arrazola torturatu zutela eta, ez genuen ezer egin.

Orain, neska hori bortxatu dutenean, erantzun bat eman dugu besterik ez bada ere, baina hurrengo gertatu arte itxaroten, ez dugu gauza handirik konponduko.

MOBILIZAPENA BEHARREZKOA DA, BAINA EZ NAHIKOA

Ezintasuna, hori dakarkigu azken batean mobilizapen hutsak.

Manifestaldiak ez dute bortxatzaileen gerazten.

Eraso hau hain pertsonala izanik eta matxismoak ematen dien indarrean oinarritzen denez, erantzun herrikoiak ez dira aski.

Zer lortuko luke mobilizapen handi batek?, agian bortxatzailea gartzelan sartzea, gehiagorik ez.

Bortxaketa eta gartzela gonbaraezinak dira.

Honela ez da bortxatzaile-emakume indar erlaziorik aldatzen. Gartzelan ere, bera da garaile.

Gorputz batean indarrez sartu da, gorputz hori sakabanatu du, eta gero ere berri egiteko gauza sentitzen da.

Hauet indar morala kentzeko bide bat besterik ez dago: emakumearen beldurra hartzea.

Emakume batek edo batzuk bere harma kentzea edo gauzaeztantzea.

Bai, zikirapenez edo kastrazioaz ari naiz. Baina emakumeen eskuz, bestela ez du ezertarako balio.

Itziar Urtasun

LESBIANAK



Norbaitek, bazterturik aurkitzen badu bere burua herri honetan, beste inork baino gehiago lesbianak sentituko du egoera honen zama.

Donostiako emakumeen asanbladan parte hartzen duten zenbait emakumek, beste batzuekin batera, lesbianen talde bat eratu dute.

Norbaitek, bazterturik aurkitzen badu bere burua gure herri honetan, beste inork baino gehiago lesbianak sentituko du egoera honen zama.

Duela denbora gutti hasi bagara homosexualitateaz hitzegiten, gai honetan ere, gehienetan gizona izaten da protagonista.

Horregatik erabaki dute emakume hauek, mugimendu feministaren parte izatea eta gizonen "Gay" mugimenduarekin taktikoki lan egitea -manifestapenak, hitzaldiak, etab. direla- baina ez bere erakundeen egituretan sarturik, hemen ere betiko gizon-emakume harremanen kontrasteak agertzen direlako, hain zuzen ere.

Hala ere, feministen artean, eta bere problema bereziak dituztenez, talde bezela autonomikoki jokatzeko dute.

BORROKAN

NORTZU DIRA LESBIANAK?

Oinarrian, emakumeekiko erakarpen bat sentitzen dute beraiengan, baina ez dago akordatu normarik bat lesbiana den ala ez erabakitzeke. Taldekoen eritziak, emakume batekin harreman sexuala izateak, berez, ez du lesbiana definitzen. Harreman afektibo sakon batek berriz, emakume asko jartzen du lesbianismotik hurbil, nahiz eta sexualitatea ez erbili komunikabide bezla.

Zailtasunak, hainbat barrera hausteko sortuko lirakeke, hots, heterosexualitatea sexu harreman bakarra kontsideratzera eramane gaituzten eskemak, ikasketak, eta heziketa osoa. Sortu dizkiguten oztopo hauek guregan eta guregandik at aurkitzen ditugu.

"Guregan indibidualki gaintzen ditugunean eta gure burua, den bezla onartzen dugunean, gizartearen ukapena jasaten dugu".

LESBIANISMOAREN AURKAKO ERASOA

Itun Zaharrean, "narda eta ofentsa buru" esaten zaio. Done Paulok, asasinatze eta bortxaketaren mailan jartzen zuen. Lesbianak sutara bidaltzen zituzten lehen. 1800.ean, klitorisa eta arraultzategiak erazutzen zitzaizkien.

Gizarte patriarkalak, emakumea birsorkuntzarako izaki bat besterik ez dela pentsatzen duenez, bere oinarriak arriskuan jartzen dituen izakerarik ezin du onartu.

Estatu sozialistetan jatsaien burjesaren adierazpidetzat daukate eta zigorra ematen diote. Gaur egun, espainiar estatuan, "Ley de Peligrosidad Social" zelako hori derogatu ondoren, kodigoak, bi artikuluren bidez zigortzen du lesbianismoa: "Escándalo Público"az diharduen 431.az eta "Corrupción de menores y abusos deshonestos"ei buruzko 452.az.

Baina, estatu modernoek, beste bide batzu ere erabiltzen dituzte emakumeen arteko maitasun azapaltzeko, sikiatria eta psikologia adibidez.

Lehendabizi, lesbianismoa gaixotasun heredagarri bat zela zioten. Gero, sikanalistasak, hautzarotik datorren sexu finakapen bat zela; orain, dirudienez, kromosometan ari dira arrazoia bilatzen.



Eta "gaixotasuna" sendatzeko, era guztietako terapiak aplikatzen dizkiote lesbianari: eltrizitatea, sikanalasia, lobotomiak, drogak, etab. Dena, bere sexua errefusa eta gorrota dezan. Terapian hauen biktimak erotzea ez da harritzekoa ba, bera bai! gaixorik dagoen gizarte honetan.

BAKARTATEAN BIZI BEHAR

Taldeak helburu bezala, erreibindikapenak defendatzen aparta, elkarrekin egotea eta bakoitzaren harreman pertsonalak lantzea dauzka.

Lesbianak, diren bezala agertzen direnean edonon, eraso jasaten ez badute ere, inguruko begiradak erakartzen dituzten ferietako tximino batzu balira bezla.


Gaur egun, egoera hau ez sufritze arren, homosexualen ghettoetara jotzen dute -gizonezkoenetara-, lesbianek toki berezi bat ere ez dute eta lasai egoteko, konkretuk Donostian.

Eta oraingoz, honelako baten bila dabilta. Ghettoak ekar diezazkiekeen arriskueta jabetzen direlarik ere, beharrezkotzat jotzen dute beste prolemarik gabe elkar ikusteko eta ezagutzeko tokiren bat izatea.

Bakartatea, noizbehinka eta aukera egin daitekenean, ederra izaten da, baina pertsona bati inposatu egiten zaionean, gogorra gertatzen da beretzat.

Ghetto baten mugak garbi daude, bertan dagoen jendea bazterturik dago gizartean, baina maila indibiduala gaintzean, errazagoa izango da taldea kanpora ateratzea eta bakoitzari dagokion lekua exigitzea arlo guztietan. Itziar Urtasun

Arabako Euskaldunak Koordinak



EUSKAL HERRIA

Arabako Euskalduntze Alfabetatze Koordinakundeak ikasturtearen haserari ekin berri dio eta aurtengo datuak, behin behinekoak badira ere, hortxe daude, ikustear, nahi duenarentzat.

Aurrez erran dezadan lehenengo inpresione orokorra nahiko baikorra dela, geroxeago zehaztuko dudanez. Ez da dudarik euskal eskolak indartuz eta hedatuz doazela, euskaragintzan jo eta ke ari direla, jende nagusia euskalduntzen eta alfabetatzen etengabeki dihardutela.

Halere, anitz jenderentzat, Euskaltzaindiaren Jagon saileko batzorde honek aurrera daraman ekintza hau, guztiz arrotza eta ezezaguna da. Beste batzurentzat, ordea, "boluntarismo" hutsean ari den mugimendu honek ezin lezake fruiturik ekar. Erakunde Ofizialetatik halako batzarrekeria ezkertiar susmoa erantsi bide zaio Koordinakundeari. Izan ere zenbaitentzat Euskaltzaindia bera susmargarri baldin bada, zer ez ote da izanen haren babesean ari den mugimendu gazte sutsu hau? Hargatik edo honengatik ez da, ene irudiko, batere kontutan hartzen euskal eskolek egiten duten lan zinez garrantzitsu hau.

Duela ez aspaldi Herri Irratian "gau eskolek" egin duten porrotaz hitz egiten zen, Eginen inoiz edo behin antzera agertu da eta beren iritzia indartzearren edo numerotara jotzen zuten; "o/o hainbatek lehenengo urtean berean uzten duela ikastetik, oso gutti direla hitz egitera iristen direnak"... e.a. Eta hau guztia egia da, baina horra ene galdera, 60 urtetatik goiti zenbat euskaldun berri ezagutzen duzue? Horietako zenbat izanen da Gasteizen?, 10en bat?, gehiegitxo delakoan nago. Adibide argi bat aipatuko dut, bere bizi guztian euskara lantzeari ekin dion Odon Apraiz euskaltzale jaun handia ez da gauza euskaraz mintzatzeko nahiz eta gure hizkuntza ederki ezagutzen duen. Eta aintzinagora joz, ba dira Gasteizen Aita Olabidek, Biblia euskaratu zuena, nekez hitz egiten zuela pentsatzen dutenak.

Gaur egunean berriz, gazte artean, inoiz ez bezalako euskaldun berri ugalketa ezagutzen ari gara, urterik urte handituz doana eta ez dirudi geldituko denik!, beharrik! Ba, euskaldun gazte hauek gehienak euskal eskoletatik irteniko jendea da. Fenomeno harrigarri hau, era-

kunde ofizialei esker baino arren gertatu da!! Eta ni beldur erakunde autonomikoak direla ere giroa ez ote den aldatuko.

Baina utz dezadan sarrera luze hau eta goazen zenbakietara.

Ikaslegoa Mailaka (ikus laukia)

Hauexek lirateke daturik aipagarrienak ene ustez:

- 1.- Ihazko ikasturtetik aurtengora o/o 12,5 gehitu egin da ikaslegoa. 100 ikasletarik gora kanpoan gelditu dira irakaslerik eza dela.
- 2.- O.H.O.-ko 417 irakasle ari dira euskara ikasten, ikastetxe estataletako irakaslegoaren o/o 33a hain zuzen ere.
- 3.- Ihaz bezala aurten ere ehunekorik handiena lehenengo mailan da, halere ihazko o/o 56,76 aurtengo o/o 45,10 era jautsi egin da. Gorenekoetan berriz o/o 4 etik o/o 8,17ra igaro gara aurten.
- 4.- Taldeetako ikasle kopurua, gehienak hamabinakoak direlarik, ttipitu egin da.

untze Alfabetatze ndea aurrera

Irakaslegoari buruz

- 128 irakasle ba dira Araban, ihaz baino o/o 15 gehiago hain zuzen. Herena, 42, berriak dira eta honetariko gehienak Koordinakundearen baitatik jaliak (harrobia ba dela esan behar da horretaz). 106 Gasteizen ari dira eta gaineratekoak, 22, Arabako beste eskualdeetan.
- Bi irakaslek egun osoz (horretara bakarrik jarriak) ematen dituzte eskolak eta beste bostek egun erdiz. Irakasleek orduko 375 ptz jasotzen dute, egun osoz ari direnei hilabeteko 9000 ptz. gehitzen zaielarik.
- Irakaskuntzaren batasun beharra dela, Arabako Koordinakundeak Jalgi Hadi hartu du ikasbide nagusitzat laugarren mailaraino.

—Jarrerak..... 8.590.500 ptz.
—Irteerak.....13.096.000 "

79-80 ikasturtearen defizita.....4.505.500
78-79 " " 392.564
Ptz.

Defizito osoa.....4.898.046

Ikasgelen erabilerak sortzen duen gastua, 300.000 pezeta, Herriko Etxeak eman egin du.

Gastuen artean agian aipagarriena Gasteizko Udalak kitorik utziriko egoitzaren apainketa da.

Egoitza horrek bost ikasgela; goiz eta arratsaldez erabiltzekoak, eta liburutegia izanen ditu. (840.000 pezeta inguru horren prestaketa).

rren indarra da (ikastola lehenengoa delarik). Ikastolak bezala, herriak bultzaturiko behetik gorako ekintza bikaina da eta haien moduz erakunde ofizialetatik at sorturiko mugimendua. Koordinakundearen ere zuloa (defizita), urterik urte handituz doa eta ekintza publikoa den aldetik, erakunde horiei dagokie aurre egitea.

Arabako E.A.K.-k joan den Martxoak 20, udal hauteskundeak bertan zeudela, eta arazo honetaz jabeturik, agiri publiko bat zabaldu zuen, bai eta alderdiei izenpetzera eman ere. Agiri horretan Diputazioa den "Servicio del Vasceunce" delakoan sartzea eskatzen zuen eta esateko dena; Union Foral, U.C.D., eta PSOE ezik beste guztiek onartu eta izenpetu egin zuten. Denok dakigunez P.N.V. da Diputazioan gehiago osoa duena. Zer dela eta euskaragintzan horren ederki ari den bigarren indar honi aterik oraindik ere ez zabaltzeko?

Presupostua

Gehiegi ez luzatzearen horren laburpena baizik ez dugu emanen:

Ondorioa

Euskalduntze Alfabetatze Koordinakundea, dagoeneko, gure herria euskalduntzen eta alfabetatzen diharduen biga-

Kepa Mendia

	Denetara							Kopurua	o/o
	1. Maila	2. Maila	3. Maila	4. Maila	5. Maila	Alfabetatzea	D titulua		
GASTEIZ									
Ikasle arruntak	601	293	271	135	38	50	30	1418	66,54
O.H.O.-ko Irakasleak	160	110	72	25	50			417	19,57
Guztira	761	403	343	160	88	50	30	1835	86,1
Errioxa Eskualdea									
Bastida	20							20	
Biasteri	14							14	
Eltzieo	15							15	
Oion	9							9	
La Puebla de la La Barka	12							12	
Guztira	70							70	3,28
Ekialdeko Lautada									
Araia	36	25	16	12				89	
Agurain	48	20	12	5	6			91	
Guztira	84	45	28	17	6			180	8,45
Gorbeia Eskualdea									
Legutio	46							46	2,16
Guztira	961	448	371	177	94	50	30	2131	100
ARABA OSOAN o/o	45,1	21,02	17,41	8,3	4,41	2,35	1,41	100	



LANGILEEN ESTATUTUA

Gai honi buruz hamaika istilu entzun ohi dira azken egunotan.

Alde batetik, hor dugu UGT eta CEOEk egindako paktoa. Pakto honek, nire ustez, egundainoko zerrikeria suposatzen du, langileen interesak kapitalaren menpean uzten baititu. Izan ere, sineskaitza egiten zait hau ulertzea: Nola daiteke, UGTek duen jende multzoarekin, langileriari honelako traizio bat egitea?

Estatutu honek, frankismo garaian lortutako zenbait gauza pikutara bidaltzen ditu. Adibidez: Indemnizazioak orain arte, langile bat arrazoirik gabe kaleratzeagatik urteko bi hilabete eman behar zioten. Estatutuarekin, hogeï egun bakarrik.

Komiteak guztiz anulatzen ditu, beren eginkizuna bu-

rokraziako lan hutsetan utzirik. Orainsu, PCE, PNV eta baita EE ere komisiotik irten dira, ezin baitute nagusien Estatutua onartu (hori diote behintzat). Nire ustez, gehiegi itxaron dute. Zer pentsatzen zuten ba?


Langileen alde dauden erakunde eta alderdiek eta, guk, langileok ezin dezakegu onar honelako ezpata bat gure buru gainean zintzilik jar dezaten.



EUSKADIK ERE LEHERGAILU ATOMIKOA

Iturri ondo informatuetatik dakigunez, laster, berehala ez esateagatik, Euskadik ere bere lehergailu atomikoa edukiko du. Aurrerantzean potentzi handiekin gonbaratzeko gai izanen gara.


Iberduerok dionez, 1981. urtean Lemoizko zentrala lanean hasiko da. Harrisburgen gertaturikoa kontutan hartuz, pentsa dezakegu zer gerta daitekeen Lemoizen. Lehergailu honen ondorioak denok sufrituko ditugu. Hau da, beste Estatu baten aurka erabili beharrean, gure aurka bihurtuko da. Pozik egon gaitzke. Ez duzue uste?



HISTORIAN ZEHAR ATRAKURIK HANDIENA?

INTERVIU aldizkarian diotenez, ETA (p-m) Banko Herrotik 130 milioi pezeta eramatean Espainiako Estatuan emandako atrakurik handiena egin zuen. Baina, benetan da atrakurik handiena? Ene ustez ez. Azkoz ere handiagoa da egunero, guri, langileoi egiten digutena. Nork? Kapitalak eta bere zerbitzariak.

Langileen zapalketa, kapitalak asmatuak atrakurik Handiena da, zeren eguneroko gauza baita, eta oraindik ez baitu bukatzeko itxurarik ez eta asmorik ere.



PORROZALEAK BURRUKAN

Orain dela guti eta ezkerreko alderdi batzuen gazteriaren erakundeek antolaturik, ospatu zen Iruinean "Porroaren eguna". Porroak erre ziren, honen askatasuna eta legeztapena eskatu zuten eta, azkenik, polizia agertu zenean, beti bezala, lasterketak eta tiroak hasi ziren.

Egun batzu geroago, Bilbon, errepika egin zen, baina desberdintasun batekin: Gauza, Iruñean bezala egin zen baina ez zen polizia agertu.

Diotenez, porroak, kuba libre batek baino askoz kalte gutiago egiten du. Eta, honela bada, zergatik ez legeztatu?

Porrozaleok aurrera
goazen porroa erretzera
herriko enparantzara
aska dezagun porroa
maite dugun kanutoa.



GASOLINA, AUTOMOBILAK, ZERGAK...

Gasolina garestia da. Gainera, 120 egunerako bakarrik gelditzen dela diote. Honen esannahia hauxe da azken batez: Lehenengo gehiago garestituko dutela eta, gero, beharbada, neurtu egingen digutela.

Hor ditugu bestalde, automobilak ere. Hile honetan berriz igoko dute beren prezioa. Ba dirudi, azken denboratan urrezkoa egiten dituztela, zeren... horrelako bategatik kilo erdia ordaintzeko...

Azkenik, zergak ditugu gure eguneroko ogia bezala. Gauza guztiekatik ordaindu behar. Zakur bat duzula eta, abere bat edukitzeagatik, zerga egokia ordaindu behar. Diru pixka bat aurreratzen duzula, berdin. Lan egiten duenak ere deliktu horregatik, ordaindu egin behar du. Automobila izorratu zaizula, pieza berri bat ipintzean, %25 ordaindu behar bere prezioaz gainera. Hauxe dugu asmatu duten zerga berria. Eta, gainera, luxu bat delako. Taxista batentzat, teoriarik, automobila bere lan tresna da. Praktikan, luxua. Zergatik? Horrela erabaki dutelako.

Honen ondorioak ere, argiak dira. Automobilen segurua ere igo egingen dute. Seguru etxeek diotenez, igoera hau behar beharrezkoa da, beraiei ere automobilen konponketak garestiago irtenen zaizkie eta. Azken batez, nork ordaintzen du guztia?

LANGILEAK. Dendara joaten denean, zeharkako zergak ordaindu behar ditu. Etxean edozein gauza egiteko (orma bat egin, adibidez), Udaletxeari baimena eskatu eta ordaindu beharrean aurkitzen da.

Dena, hitz berdinez definitzen da: Ordaindu..., Ordaindu..., Ordaindu...

NOIZ ARTE?

Eta, bitartean, gure alokairuak igoterakoan egundainoko oztopoak jartzen dizkigute.

BIXER



SANITATEA

Gai hau aipatzerakoan beharrezko zaigu azken gertaera gogoratzea. Basurtuko ospitalea hertsu dute. Honen arrazoiak, dirudienez, hauk dira:

Zenbait ekiporen kondizio txarrak eta "seguritate sozialak" zor dien dirua ez duela ordaintzen. Bestalde, ba dirudi beste ospitale edo zentrueri baino gutiago ordaintzen dietela.

Azkenik, nork ordaintzen ditu hautsitako platerak? Geuk; hau guztiau ordaintzen dugunok. Orain, 1.200 ohe gutiago dugu, eta Kruzesen ez dago lekurik...

Bitartean, ambulatorio eta kontsultategietan bulego medikuntzan saiatzen dira. Gaizki zauden eta zer duzun jakin nahi baduzu, osagileari ordainduz bakarrik lor dezakezu. Nola konpondu hau? Bide bat bakarrik dago: Medikuntza arloa herriaren kontrolpean jartzea eta medikuntza pribatua deuseztatzea. Guk ordaintzen duguna, geuk eta, ez beste inork, kontrolatuz. Hauzoetan horretarako komiteak osatuz...

Hauzo elkarten bitartez... eta abar.

NOIZKO BEHAR DEN BEZALAKO MEDIKUNTZA BAT?



anaitasuna

HARPIDEDUNA!

Gurekiko harreman guztietarako aipa ie-
zaiguzu, zure zenbakia.

BIZKAIA
HAMABOSTEROKOA

URTEKO ABONAMENDUA:

EUSKAL HERRIA:	1.200	pezeta	/75	F.F.
ESPAINIA eta FRANTZIA.....	1.500	"	/93	"
EUROPA eta AMERIKA.....	1.600	"	/23	U.S. d.
Beste herri guztiak.....	1.700	"	/25	U.S. d.

ALDIZKARI hau IRAKURRI NAHI baduzu, bete
ezazu argi, ondoko txartela eta bidal helbide hon-
tara:

ANAITASUNA

ZABALBIDE 68., BILBO-6

POSTA KAXA : 495

Tfno. bakarra: 94-4335808

Izen deiturak.....

Bizilekua.....

Herria eta Posta Barrutia.....

Barkua eta kontu irekia.....Tfnoa.....

JAKIN

EUSKAL KULTUR ALDIZKARIA

Hiruhilabetero

Hamaikagarren
zenbakiaren gai nagusia:

**Martxoko Hauteskundeak
Euskal Herrian**

**Mikel Zarateren bizitza
eta lanak**

—o0o—

900 pta. urtean.
275 alea

Eskabideak eta harpidetza:

**Gral Mola, 23, 1-
D O N O S T I A
Tel.(943) 271713**

—o0o—

900 pta. urtean.
275 alea

**Eskabideak
eta harpidetza:**

**Gral. Mola, 23-1.º
Donostia
Tel. (943) 27 17 13**

Duela hogeitabost urte ALGERIAR ASKAP



Frantses
armadak
gogor
ziharduen

NAZIOARTEKOA

Deskolonizapen prozesuan herri gutti guttik, Algeriar Herriak bezain kario pagatu dute beren berjabetza. Zortzi urte burrukatan, milioiren bat hil, ha- maika biktima torturatuak edo zaur- tuak izanik. Algeria izan zen, izan da eta izanen da, inperialismoak menera- tutako herrientzat burruka-eredu bi- kaina. 1954.eko Urriaren 10ean, Kasbah-eko

egoitza batean, algeriar iraultzaren buru- zagiek erabaki zuten, zortzi urte iraunen zuen askapenerako gudua, hartarako Ha- zilaren 1a hautatuz. Hau azkenurreko bilera zen. Azkena Urriaren 24an gerta- tuko zen. Bertan, Rabah Bitat, Mostefa Ben Boulaid, Mourad Didouche, Moha- med Boudiaf, Belkacem Krim eta Larbi Ben M'Hidi hotsemaileek onartu zuten "Hazilaren 1eko aldarrikapen historikoa.

"Nazio Askapenerako Fronteak etsai bakarra kolonialismoa du; bere helburu bakarra, nazio askapena, ber- jabetza. Berak bildu behar ditu He- rriaren azku eta oldarrak oro eta al- geriar arazoa internazionaldu, bestalde. Burrukabidea: era guztitakoa..."

Izan ere, askapenerako gudua Urriaren 31aren azken minutuetan hasi zen, goi-

GENERAKO IRAULTZA 1954.eko Hazilaren 1a

zaldeko ordubietan lehertu behar ziren bonba batzuk eztanda egin zutenean Boufarik eta Cellunaf kooperatibetako hangarretan. Kari honengatik, Ouamrane sarjentua Boufarik-eko kaserna eraso beharrean aurkitu zen. Harmak erdietsi nahi zituzten, baina zaingoarenak soilik eraman. Algeria osoan holako komandoen ekintzak hasten dira, ondorio eta arrakasta ezberdinekin, baina Konstantinako hegoaldean, Aurès mendietan errebelamendua goreneko punturaino iritsiko da, Mostefa Ben Boulaid-en gidaritzapean. Khenchelán, futbol jokalariek, militarki jantzita, harmak eskuratu eta polizi komisaldetia esetsiko dute. Telefono eta elektrargi tantaiaak moztuta, transformagailuak leherturik, kasernak eta jendarmetxeak erasoak, gordetegiak irazekirik,...

Hazilaren 2an, goizaldean, Aurès mendian, Hady Sadok kaid kolaborazionista eta Guy Monnerot frantses maisua eta bere emaztea hilak dira, Ben Boulaid-en gerrilleroen eskutan. Gobernari nagusi Roger Leonard-entzat ez zegoen honez

Bezperan, nazionalistak manifestatzera baimenduta zeuden, baina errebindikapen demokratikoak galdatu eta Algeriako oihala zuri-berdea ez agertzeko abisu eman da, polizia-soldaduei su eraginen zien mehatxuarekin, osterantzean.

Manifestapena meskita ondotik abiatu eta hirigunera zuzendu zen. Polizia begirari zegoela, manifestariak algeriar bandera zeramaten mila bat metrotan edo. Hiriguneari bertan, komisari batek erauzi nahi ukan zion bandera manifestarietarik bati. Honek gogor egin zuen eta poliziak su. Hildako bat eta zenbait zaurturik. Ondorioz, eta mendeku nahian, manifestariak europarrak esetsi zituzten; poliziak, armadaren sostenguz, desarratu zuen haien kontra. Orotara, ehun eta hamabi frantses hilda, hamarretik berrogei milatara algeriar gorpu, hiria okupaturik, Takrtount eta Oved Marsa herriak bonbakaturik.

Frantses Gobernuaren iduriko, "konspirazio faxista" zanpaturik zegoen.

di, Didouche) gizon gainenek eta MTLDren (Khider, Belkacem Krim, Ben Bella, Ait Ahmed) Alkairoko ordezkariak sorteraiziko dute Batasun eta Ekintzarako Batzorde Iraultzailea.

1954.eko Urriaren 10ean, Nazio Askapenerako Frontea eta Nazio Askapenerako Armada sorteraiziko zituzten, haik arrakastatsuak izanen zirenak hurrenekoan.

Burruka abertzalearen gidaritza, burjeseriaren eta bere intelektual sozialdemokrata, ezkertiar jantxidunen eskuetatik iraganen zen burjeseria ttikiaren eta algeriar nekazalgoaren eskuetara. Algeriar Herria eskenaratu eta zein nor zen ikusten hasi zen.

Ondorengo gertakariak

Hazilaren 1aren ondoko seigarren hilabetean, OTANen sartutako lehen dibisio berriak heltzen hasi ziren. Aldi berean, algeriarren "berrezarmenduak" hasten dira, burrukari abertzaleei beraien sosten-



Herria, Herria bakar-bakarrik, heroi eta garaile

gero dudarik, Algeria osoa harmatan zegoen.

Aurrengo gertakariak

1945.eko Maiatzaren 8an, Setif-eko hirian merkatu eguna zen. Ohi baino 15.000 lagun gehiago zeuden. Fellah-ak eta merkatariak nondik nahi zen ere etorrita zeuden.

Eratzen hasten dira

1946.ean Erakunde Sekretua sortu zuten zenbait militante nazionalistak. 1950.ean, koloniar poliziak eragabetuko zuen, 1954.ean birsortzeko Ben Bellaren gidariaren pean eta MTLD alderdiaren babespean.

Barne-hauziak gairatzeko, Erakunde Sekretuaren (Boudiaf, Boulaid, Ben M'Hi-

gua galerazteko asmoz.

Jadanik, ba dihardute sei wilayak sendotuki: 1.a, Aurès ardatz duela, gerrilleroetarik 15 o/o-ekin; 2.a, Konstantinerriko iparraldea hartuz, Setifetik tunisiar mugaraino, abertzale kontingenterik laurden batekin; 3.a, Setifetik hiriburu alderaino, 10 o/o-ekin; 4.a, Algeretik Ouarsenisaraino; 5.a, Oran, Tlemcen eta Mostaganen-eko departamenduak hartuz,



Algeriar abertzale zenbait hatzemanik

eta azkenik, 6.a, Ksour mendien aldea. Bi milioi algeriar kontzentraguneetan jarriak izan ziren, kolonialistak errendatu baino lehen 1881 kontzentragune zeuden milioi t'erdi lagunekin. Frantses armadaren milioi erdi soldadu zeuden eta, ahan-tzi gabe doa, OAS famatua, "zango beltzen" (pieds noirs) erakunde zanpatzaile eta asasinoa.

Baina dena hutsaren hurrengoa zen, dena kolonialista zakarren etsigarria, iraultzaileen aurkako hertsadura alferrikoa.

Algeriar Herria bere Historia berridaz-ten hasia zen eta segituko.

M.A.

Askapenerako buruzagiak

HOCINE AIT AHMED

Alkairoko Nazio Askapenerako Frontearen (FLN) ordezkariaren kidea. 1954. ean Ben Bellarekin batera hatzemanan. Berjabetzaren ondoan, "Indar Sozialisten Frontea" deitu alderdi politikoa sortezazten du; ondoren Kabylia gerrillero talde bat ere sortezaziko zuen. Hatzema-na, hiltzera kondenatua eta indultatua. 1966.eko Apirilean itzuri eta herbestean bizi da.

AHMED BEN BELLA

Alkairoko FLNaren erakundearen arduraduna, Erakunde Sekretuaren buru zaharra. Algeren, Urriaren 22an frantsesek hatzemanan. Algeriako lehen Estatutu-burua, 1965.eko Ekainaren 19an Houari Boumediene koronelak Estatu-buru plaza-tik egotzia. Aurten arte baztertuta, egun egoitza mugatu eta begiratu pean dago.

LARBI BEN M'HIDI

Oran-herriko arduraduna errebelamendu-ko unean. 1957.eko udaberrian jauska-

riek (parakaidistek) asasinatua, Algereko batailaldian.

RABAH BITAT

Errebelamenduan Algereko eskualdearen arduraduna. 1955.eko Otsailean atxilotua. Askatutakoan, Estatu ministraria, Gobernuaren lehendakariordea, Garraio-tarako ministraria eta Biltzarre Naziona-leko burua izana.

MOHAMMED BOUDIAF

Barneko burrukariaren eta kanpoko erakundearen bitartekoa eta sei wilayaren baterakuntzaren arduraduna. Ben Bellarekin batera hatzemanan. Oposiziora iragan eta egun herbestean bizi da.

MOSTEFA BEN BOULAI

Aurès-eko arduraduna 1954.eko Hazilean, bertan lehenen sortu zelarik errebelamendua. Burrukatan hil zen 1956. ean.

MOURAD DIDOUCHE

Ipar-Konstantinoko arduraduna. 1955.

.eko Urtarrilean hila da, jauskariaren ond-ertze batean.

MOHAMMED KHIDER

Alkairoko FLNaren ordezkariaren kidea. Ben Bellarekin batera hatzemanan. Berjabetzaren ondoan oposiziora iragan eta Algeriatik itzurtzen da. FLNaren "gudurako altxoraren" kontu irekiaren jabea, suitzar bankan gordetako hirurogei-ren bat milioi liberatakoa zelarik hura. 1976.eko Urtarrilaren 3an atentatutan hila da Madrilan.

BELKACEM KRIM

Matxinadaren hasieran, Kabylia-ko arduraduna bere aldeko Ouamranerekin bate-ra. 1958. ean, behin-behineko Gobernuaren lehendakariorde izendatua, Evian-eko akordioaren negoziatzaile eta sinatzaile, berjabetzaren bidea irekirik. Oposiziora iragan eta 1969.eko Apirilaren 7an, Oran-eko Hautzategi Iraultzaileak hiltzera kondenatua. 1970.eko Urriaren 18an, Frank-furteko hotel batetan hilik ageria da.

FRANTZIAKO ZENBAIT POLITIKARI URDURI

Hau bai arazo itzela nerri nonetako gobernuan parte hartzen dutenentzat! Urriaren azkenaurreko asteburuan, Lan-ministraria, Boulin jauna halegia, hilik agertu zen urtegi batetan, eta gainera, buruhiltze antza zuen hark! Laster, beraren alboan aurkitu ziren gutun batzuringatik, egiatan ministrariak bere burua hil zuela jakin zen, eta handik aurrera, normala denez gero, informabide guztietan, heriotzeaz, arrazoietaz, errudunetaz, eta abarretaz mintzatzen hasi ziren... eta gauzak nahasteko, bi egun berandua-go, zenbait egunkaritarara Boulin berak, hil baino lehen, bidalitako eskutitzak agertu ziren.



"affaire" honen lehen ondorioa, prentsa askatasunari buruzkoa izan da

Jakina zen ministrariaren fama nahiko konprometaturik egon dela azken hileetan, lur-zati handi baten jabetasuna eta esplotakuntza kausa zirela. Arazoa justizia-bideetatik zebilen, den dena oso nahasia baitzegoen. Hala ere, nola espero horrelako amaiera tragikorik?

"Affaire" honen lehen ondorioa, prentsaren askatasunari buruzkoa zen: pertsona publiko baten entzute ona dudatan ipini ahal da, bere arazo pertsonalak haizetara ateraz?; hots, nahiz eta gaia "Le Monde" eta "Le Canard Enchaîné"-ren metodoak juzkatzen ziren, batez ere.

Kontrako eta aldeko argumentuak ematen segitu zen, eskutitz famatuak agertu arte, zeren momentu horretan zerbait interesgarriago baitzuten eztabaidatzeko. Gutun horietan, Boulin jaunak, beraren ustez, bera betetzen zuen zoritxararren errudunen izenak eta ekintzak ai-

patzen zituen: Justiziaren ministraria, R.P.R.-ko zenbait burkide ezagun, beraren arazoa aztertzen ari zen jujea,...

Hori bai izan zela eskandalua eta esamesen sorburua! Atakatuak izan diren guztiak beren burua defendatuz, besteak, benetako gertaerak eta errudunak ezagutu nahiz, gehienak, edo asko gutxienez, affaire honetaz ahal den gutxienez hitz egin dadila gura izanez agertu dira. Azken batetan, nola interesa dakioke boterean dagoen norbaiti zapi zikinak ateratzea? Hala ere, hau idazten nagoela, Boulin hil zela 10 egun direlarik, oraindik ari dira eguneroko prentsan erruaz eta inplikazioetat mintzatzen.

Zenbat zikinkeria ikusten da boterean, edo gutxienez, politika-munduan, parte hartzen dutenen artean! Ba generikien jadanik horrela dela, zoritxarrez,... baina argiegi ikusi da, askoren ustez, oraingo honetan.

Maria Jesus Esteban



HEGO-KOREAKO

Park Chung Hee-k diktadura gogorren ziharduen hamazortzi urtez Hego-Korean, beraren aldekidetik asinatua izan arteino. Estatu-kolpe labur eta arteza, lehenengo berrietan istripu antza eman zaiolarik. Boterearen gainean orain jarriko da, Park-ekin batera bere karrera egin duen gizona, Choi Kyu Hah lehen ministraria. Hau berau diktadoreak berak izendaturik zegoen, bere ondorengo gisa. Gizon gogor, diktadore kontsideratuta dago. Ez da arrazoi zurigarri samarra herrialdearen demokratizatzaile gisa itxura dadin, holako papera jokatu behar badu. Azken batean, asinatua Estaturua lehenik komunista, gero demokra-



Park Chung Hee Lehendakaria

ta eta botererakoan faxista antzeko diktadore agertua zen bestorduz.

Aurrenengoa eta Park

Park izan zen, Syngman Rhee gure garaietako diktadore handietarik beste baten ondokoa. Syngman Rhee, 1875.ean jaioa eta 1948.ean boterera iritsia dugu, hirurogei eta hamahiru urte zituelarik; agure temati eta krudela zen, liberal eta demokrata kolorez estalia. Nazionalista independentista, kristaua, konserbadoreek jazarria. Amerikar erako hezkuntza hartu ukan zuen; George Washington Unibertsitatean, Harvarden, Princetonen, Filosofia doktore egin zen. Baina



Cha Ji Chul bizkartzainburua

agintedun izan bezain laster, Biltzarre Nazionala purgatu, oposizioaren aitzindariak —haien artean, Alderdi Progresistaren idazkari nagusia— hiltzera kondenatu eta terreatu, exekutatu, alderdiak debekatu, eta askatasunak galdatzen zituzten ikaslariak odoletan hertsatu egin zituen.

Estatu Batuentzat gizon baliagarria izan zen, Ipar-Koreatik iragazitako komunismoaren galerazteko, baina demokratik (?) tiranoen ordez jartzeko bolada hasi arteraino soilik. Rhee agintetik egotzia izan zen, Hawaira herbesteratu eta herbestean hil 1965.ean. Nahaspilaldi politikoaz geroztik, 1961.eko Maiatzaren 16ko Estatu-kolpea gertatu zen.

Aldi hartan, Kennedy Etxe Zurian zegoen eta kanpoko politikamoldearen berrikuspenera egiten ziharduen. Estatu-kolpea Park jeneralak kudeatuta zegoen, hasiera batean, berreraikuntza nazionalerako Goi-Kontseiluko lehendakariorde agertu zen arren. Hilabete batzueko geroago, Errepublikaren Lehendakaria zen, asinatua izan zeneko ostiraleko trajeria agitu arterainokoa.

Park Chung Hee larderiatsu eta misterioitsu bezala kontsideratua zen. Haren larderiaren eta bortizkeriaren eskola eza-

gun ezaguna zen: Japoniako Enperadoregoaren Militar Eskola eta bere Armada, Estatu Batuen aurkako gudualdian, 1940.etik 1945.era, Japonia garaitua izan zen arte. Amerikarrek korear penintsula okupatzen dutenean, bertara doa Park, agian amerikarrek etsaiez baliatzeko ohitura baitute beren helburuetarako, agian Japoniar Armadan amerikarren interesen pean baitzegoen hura. Korean, Estatu Batuek ezarri eta zuzendutako militar eskola batetan berronetsi zizkieten, Japoniar Armadan lortutako militar graduak. Bertarik, Korear Polizi Indarra zeritzonaren kapitain eginda irten zen.

Urtebete geroago, Park egitate are



Kimkai Won idazkari nagusia

misterioitsuagoan sartuta zegoen. Hatze-man eta komunistagatik juzkatu zuten. Akusatu zitzaion, Korear Polizi Indarrean desmoralizapen komunistazko kanpaina bat egitea. Militar Hauzimahiak kulpant eriden zuen eta ondorioz, hiltzera kondenatu. Baina gertaldi hau ez dago klarki, zeren eta exekutua izan ez baitzen. Are harriagoa dena, Armadan berriz onartu zuten! Ipar-eta Hego-Koreen artean gudua hasi baino bost egun lehenago, hain zuzen, gerraondoko gertakari orozgainen izanen zena. Park antikomunista porrokatua ageri da honez gero. Baina, misterioitsu misterio, ez zuen sekula ere burukatu, diotenez. Eta fite goratua izan zen militar mailaketan, ordea. Gizon ho-

AFARI ODOLEZKOA

nek, 1946.ean komunista izateagatik kondenatua, komunisten kontrako guduan dibisioburu edo dibisio-jeneral graduarekin bukatuko du, kapitain gisa hasitakoan. Hau denau hiru urtetan abantxu.

Park, boterearen eskenara

Honako jeneral hau, tiranoa 1961.ean

erorerazten duen Juntan ageri da, bi hilabete geroago Errepublikaren ordezkolehendakaria da, 1963.ean lehendakari hautatua, azken finean. Estatu Batuek sostengatuta, noski.

Aldi hauetan, Park demokratizatzaileragertzen zen. Jadanik 1961.ean ba dio berak, ezen demokraziaren ezartzeko, herrialde gaizki gobernatuan (Chang Myun



Asasinatze-afaria berriz jokaturik



Choi Kyu Hah ordezkolehendakaria



Kim Jae Kyu KCIA-ren buruzagia

katolikoak gobernaturik) ordenu pixka bat jarri beharra dagoela eta beraz, Bilzarre Nazionalaren deuseztatzea beharrezkoena dela. Bestalde, noski, komunismoa eta aginte-ustelkeria gatazkatu beharra. Komunismoa eta ustelkeria gatazkatzeko bideak ekonomiaren zuzperetzea eta askatasun publikoen ezartzea ziren, baina beti Kennedyk urrundik onetsitako horraکو ordenu horrez. Askatasun publikoek itxaroten ahal zuten; berez etorriko ziren bizimaila goititzean. Lehendakariaren boterea erabatekoa zen. Bi gertakarik gehixeago indartuko ziokeen bere boterea. Alde batetik, Kennedyn asasinatzeak eta Estatu Batuen kanpoko politikak gizon gogorak sostengatzeak, lehenik Johnson-ekin eta bigarrenik Nixonekin. Bestaldetik, Viet Nameko guduak, hau Asian barna sartzearen arriskuak eta bi Koreen artean istilua birsortzeko beldurrak. Ondorioz, demokrazia betikotz galdu zen, aginte-ustelkeriak ez zuen mugarik, oposizioa suntsitu eta hertsadura bizkortu zen. Egiantan, Park-ek ezin egin ziezaiokeen Syngman Rhee-ri inolako erreprotxurik. Zailtasunak agertzen zitzaizkionean, gudu-legeari eusten zion.

Betiko leloa komunismoa zen. Aldi batean, Park bera kondenatzeko arrazoia izan bazen, orain harako arrazoi hartaz baliatzen zen bere etsai politikoak kondenarazteko.

Baina ba gaude Carteren garaietan, diktaduren purga-haroan eta giza eskubideen gaiari ekitean. Gudu-legea abolitu egin zen eta, Park lehendakarietzarako birhautatua izan baitzen 1978.ean, amnistia dekretatu, Carteren onspenaz, klarki. Bost mila preso politiko kaleratu ziren, batzu, Iparrarekin izanikako gudualdian atxiloturik; beste batzu, prozesurik ezagutu gabeak. Oposizioa abiarazten zen modu hontara.

Hala ere, ekintza politikoaren kontrako mediorik zeukan Park-ek. Hauzitegiek King Young Sam, Alderdi Demokratikoa Berriko hotsemailearen deputatu aktari uko egin zioten, haren gogaideek dimititu zuten eta karrika-kurridak hasi ziren, ikaslariekin aldetik batipat. Azken hau hertsatzeko, gudu-legea berrezarria izan zen. Amnistiaren ondoan, gartzelak eta kontzentrategiak berriz bete.

Asasinatze eguna

Hau honela, asasinatua izanen zeneko afarian gaude, KCIaren (Korean Central Intelligence Agency, holaxe deitua baita!) eraikuntza batean eginda. Bertara, Park lehendakaria, Kim Jae Kyu KCIaren buruzagia, Cha Ji Chul lehendakariaren bizkartzaina eta Kim Kae Won, Park-en idazkari-burua agertu ziren. Kim Jae Kyu eta Cha Ji Chul zeziotan hasi ziren eta Kim-ek pistola aterata su egin zuen, beste KCIaren kide batzuk era berean egiten zutelarik. Ondorioz, sei hil; haien artean Park eta Cha.

Hasieran, Gobernuak esan zuen lehendakaria Kim eta Cha-ren arteko istilu



Park-i azken agurra



Dena kontrolpean dago. Tankeak Seuleko karriketetan

ezusteko baten biktima zela. Azkenik, bi egun geroago, Kim-ek alde zuzenetik asmatutako asasinatzea zela.

Gobernagailuak abiatu egin ziren. Choi Kyu Hah lehen ministrariak, manua zenez, Park-en ordea hartzen zuen eta lehendakarietzarako hauteskundeak hiru hilabetetako legezko epean izanen dira.

Estatu Batuek Estatu-kolpea zela baietsi dute eta hau egiteko ba daukate medio frango (40.000 soldadu, Hego-

-Korean, kontseilariak edonon, enbaxada handia eta berezitua). Bestalde, iragarria dute bien arteko erlazioek aurrera segituko dutela eta Ipar-Koreari abisu ematen zion istilu hontan guziantan eskusartzerik ez ukateko. Bai, holaxe aginte berria sendotuko dute.

Sovietar Batasunak salhatu duenez, txotxongilo-aldatzea besterik ez da izan afaltiarren komeria trajiko hura.

M.A.

KARIBEA SUTAN

Alarma txinpart bat sutu da Karibeko irlek eratzten duten uztaiari.

Beren independentziarantz esperimentatu duten aldaketak eta haien kokatze geopolitikoak Kuba eta Estatu Batuen nagusitasun nahia piztu dute. Eta aitzindaritzaren eskuratzeko borrokan Venezuela agertzen omen zaigu bitarteko, hirugarren irtenbide bat eskainiz, eta horrelaxe agertu da Nazio Batuen foruan eta O.E.A.-n.

Izan ere, ezin zezakeen inork sinets Carter-en erabakia maniobra militarrik, inteligentzia-zerbitzuak eta politikoak Karibearen gehitzeko bakarrik sovietarren presentzia Kuban izan zitekeenik kausa.

Key West-en, Floridan, base militar bat ezartzeko erabakiak, Guantanamo-ko badia beste 1.500 marine gehiago bidaltzeko eta Karibeko "jokuek" beste zer edo zer adierazten dute, politika determinatu batekin herstuki lotzen dena.

Grenada, Santa Luzia, Dominika eta Nikaragua elkartu dira Jamaika eta Guianarekin inperialismoaren kontrako jarra tinko bat hartuz eta beren subirotasunaren baiezpenean. Eta USA-k bere "atzeko patiotzat" duen eskualde horren eboluzioak arras kezkatu du Washington.

Tropak Kuban edukitzeak abagadune polita eman zion Carter-i egun eskualdean dauden nazio askapenerako herri mugimenduak suntsitzeko, eta beronek, beharbada hobatu zuen haren imajina, gizon gogor eta zirt edo zartekoarena, eta senatuaren eskuz SALT II tratatuaren berrospena eskuratzeko posibilitatea gehitu.

Zalantzarik gabe, Kuba guztiz interesatua agertzen da Karibeko herriekin erlazio zabal-zabalk finkatzeko eta bere eragin politiko eta ekonomikoa (eta baita militarra ere) handiagotzeko. Eta hemen, munduko hainbeste lekutan bezalaxe, Kubaren laguntza iraultzailea da, gero, aurre-aurrean "Sam Osaba" egon arren.

Baina eskualde honetako interesaturik handiena Estatu Batuak dira, eta arrazoik askorengatik.

Karibea, bai ikuspegi militarretik eta bai ekonomikotik ere, garrantzi handikoa dugu Estatu Batuentzat.

Eskualde honetarako estatubatuarren esportaketak bi mila milioi dolar inguruak dira urtero, eta inportaketak bost mila milioi dolarrekoak, haien bauxita inportaketa osoaren 63 o/oa eta haien petrolio erosketak guztien 12 o/oa barne direlarik.

USA-k eskualdean dituen inbertipenak lau mila milioi dolarrekoak dira.

Argi eta garbi ikusten da USA-rako Karibeko irlek duten garrantzia, lehen-gaiak eskuratzeko batez ere.

Orain arte hondartza eguzkitsuekin eta dibertsiorako irla paradisuarekin hain



Cuba guztiz interesatua agertzen da bere eragin politikoa Kariben handitzeko



Carter-i eskualdean dauden nazio askapenerako mugimenduak suntsitzea interesatzen zaio.

lasai eta harro egon diren amerikar komunikabideak eta gobernariak beren kezkak agertzen hasten dira, eskualdearen finantzaserako "kubatar mehatxuaren" arriskuaren aurrean.

Eta Guantanamo-ko pantominaz aparte, neurri gogorragoak hartuko bide dituzte Estatu Batuak, baldin beren nagusigoa galdu nahi ez badute.

Karlos Santisteban



Daniel Landart:

zirrarragarritasunaren garaitia

Uda honetan erosi eta orain astebete irakurria, ezin ezkuta dezaket Daniel Landarten liburu berriak egin didan zirrara. "Haur denboretako hixtorio-mixterio" batzuk baino izan behar ez zutenak zirrara eta laztantasanaren gailurretara heltzen direlarik, antzerki abertzaleen Daniel baino gehiago,

*Zure begiek
ene maitia,
ba dute biek
dirdir ezitia...*

poemaren egile boteretsua baiterakarte gogora, hitz hautatu, imajina apur eta erritmu zalu eta bizkorraren Daniel. Bihotz eta gogoei zirkin eragiten dien idazle ahaltsua, hizkuntza aberats eta batera lar nahasmendurik gabekoa, baina abagadune

bakoitzeko adierazpide egokia bilatzen duena. Liburua amaitu eta, tankera-ikasgai batzu ote zirratekeen galdetu nion neure buruari, hain baita, batetik, gaiaren garrantzizgabekoa, antzaz, eta zoragarri, berriaz, erdietsiriko adierazkortasuna. Esaldi labur eta zehatzez, deskribatu nahi denaren gunea erakusten dakiena, bihurturik gabeko, amerikarrek ohi duten abiadura ikaragarri horretaz. Lau marra eta argazki bat. Bi zertzelada eta filme oso bat. Arrapaladan igaro egiten diren pasadizo eta ikuspegiak; haatik, osotasunez igarotzen direnak. Ez da, hain segur, prosa, hitz lau ahalguztidun bat, erran nahi baita, edozertarako balio duen prosa horietako bat, eman dezagun elaberri luze bat idazteko modukoa, nik uste; ez dago

zalantza-izpirik, baina, hori dela haurtzaroko oroimen batzuk eman dezaketengaina. Beste era batera esatearren, polita.

Ez da gainera ezelako propaganda politikorik egiten, Nafarroa Behereko herrixka batetan jaiotutako mutil baten bizitzeko kondatzen baizik. Hori izan baitaiteke arrisku bat (teatroan egiten duena, eta dutena, ez da oraingo gaia), herri-kontzientzia sortzekotan hastea, eta hori ez da, ezelan ere ez, literaturaren funtzio nagusia. Oroz gainetik literatura izan behar baitu literaturak, dasta daitekeen eta jendeen interesa sor. Eta ageriko da liburu eder horrek ez duela zerikusirik inongo panfletorekin; ez du deus zor. Gainerakoan, ez da Euskal Herri idilikoaren

deskribaketa, Danielen haurtzaroko Euskal Herri erreala baizik, gogor, lantsu eta mila problemekin:

"Abertzale bilakatu nintzen.

Abertzale.

Ene biziko hirugarren zatia hasia zen"

Liburuaren bukaeran esanen den modu horretara idazle on honek konpontzen saiatzen den arazoan Euskal Herria.

Ez da ezein topiko hurrengo lanaren zain gauzkala egileak esaten badugu. Irrikaz baikade, antzerkiez gain, hain erregulariki sortzen dituen, —oso zail badira ere lortzeko edo eta antzeztuak ikusteko, Hegoaldean behintzat—, zerbait gehiago eta handiago egiteko aski zenaren jabe dela erakutsi baitu argiro gure nafarrak, hain ahul ez diren aihen askok, izan ere, berentzat gura luketen indar eta sormen mugagabekoa.

Orain liburuaren zati polit bi transkribatzen ditugu irakurlearen asegarri.

Esan egin behar da, esan, baina, oso ondo argitaratuta dagoela liburu, argi eta apain, eta errakuntzarik gabekoa, zoritxarrez oraindik euskal liburuarekin maiz gertatzen ez dena. Bihoazkie hemendik nire zorionak Elkar argitaletzeko lankideei, aurrera eginen duten itxaropenaz.

Erosteokotan: Daniel LANDART, Aihen ahula. Haur denborako hixtorio-mixterio..., Elkar, Donostia. Edozein liburudendatan.


Bataioa (15. or.):

"Sendatu nintzeneko, herriko elizara eramanez ninduten eta han Jean Arbeletxe jaun apez ahaideak bataiatu. Gatza biziki gazia eta ura berriz hormatua; denbora guztian ez omen nintzen nigar egitetik isildu... Pettan Durruti eta Jana-Mari Landart okazaturik atera baitziren, zer semehatxi bihurria zuten ikusirik..."

Etxea eta Etxekoak (15.-18. ork.):

"Ene sortetxea baserri bat da. Ez ttipi, ez haundi, familia baten hazteko doia. Ez zaharregia ez eta berria... goxo du barnean bizitzeak. Ate nagusitik begiratu, ez dira mendi tontor harritsu edo zuhaitzez estali batzu baizik ikusten. Zilo batetan gordea; iduri luke munduko nahaskeria eta furfuriatarik urrun bizi dela; bakar bakarrik; hain hurbil dituen Isturitzeko eta Otsozelaiako harpeetan laminak bizi ziratekeen bezala.

Aitatxi Eñaut Urruti, Armendaritze Meharrian sortua, hamalauko gerlan bi aldiz kolpatua, biziki eleketari pollitua; eta merkatuz-merkatu anitz kurrutua; amatxi Dominika Durruti, Harrigainbordand sortua eta bere bizi guztian han egona; aita Batita Landart, sortzez Isturitze Larrondokoa, Oragarre Haizaharrean ttarrottua eta ene ama Kattalin Urrutirekin etxera ezkondua; horra familiako jende handiak. Bestalde, bi arreba.



Bata, hamaika urtez zaharragoa, Mayi; bestea seiez, Beronika. Eni aldiz Daniel eman didate izena, sortu nintzen egunean saildu hori ospatzen zelako. Beste izen bat ere lotuz: Pettan, bataioko ene jasalearena"

Ttipi ttipian bi presunek besteek baino barnago hunki naute: amatxik eta aitak. Gehienik amatxik hazia nau. Haren itxura beti begietara heldu zait. Ileak, xuri baino xuriagoak, begiak erne, gorputzez xut eta mehe; arta haundienarekin zaintzen eta laguntzen ninduen, eta mintzatzen zelarik, hitz goxo, ezti eta kontsolagarri batzu baizik ez zituen erraten.

Aita aldiz, beste begiz ikusten nuen. Aitaren beldur nintzen. Biziki beldur. Gorputz sano, begia pizu, buru zentzaduna, oroz gainetik larderia handiko, guti mintzo baina behar zelarik ongi.

Iluntzeetan, landeetarik sartu eta, behi deizteko denboran, anitz kantu xaramelatan zuten eta haietarik zenbait, Pettan orduko gure mutilari erakasten; xoragarri baitzen geroago haien entzutea. Ardura, bi bozetan kantatzen zuten: *"gauaz ibiltzen dena ez da zuhur ari"* eta erran nezake hori dela ene aitaren kantu maiteena.



Behiak deitzi bezain laster sukaldera heldu zen baina kanturik egin gabe; aitatxiri ez baitzitzaion hain laketa eta, aitararen iluntzeetako bozkario hori... Elkarrekin afaldu eta, emazteek baxerak ikuzteko artean, aitak bere altzoan hartzen ninduen eta trangelatuz *"Arri arri mando-ko, bihar Iruñerako"* kantatzen zidan... Ez luzaz haatik, bestenez aitatxik ez baitzezakeen bere egunkaria behar bezala irakur... Eta (hitz dizuet) egunkari hori sakratua zitzaioala... Hainbat gaixto beraz guretzat, ez baldin bagenuen aita-txiren lehen keinuan berean konprenitzen... bai ttipi, bai haundiek.

Aitaren altzoan egotea... Nahiz larderiatsua, hotza eta bortitza izan, aitaren egitate amultsu horrek lasaitzen ninduen, ene alde zuten maitasuna sendiarazten baitzidan. Baina luzaz eta luzaz aita gogoan pentsaketan egoten naizelarik, ez dut uste sekulan zinez ni baitan sartu denik eta beti nonbaitik etorritako gizon arrotz bantentzat hartu dut (egia da ni egin aitzin bost urte pasatuak zituela Alemanian) eta nago ez ote diodanez errespetu gehiago erakutsi, amodio baino?

Eta ama? Beti gauza zaila da nor bere amaz mintzatzea. Amarentzat dudan amodioa hain haundia eta bitxia da non ez baitezaket hitz aski hunkigarririk aurki haren goraiatzeko. Ba dakit ene ukatea zernahi gosta zitzaioala; azken hiru hilabeteak etzanik pasa behar izan zituen, den-mendreneko lanik egin gabe, oroz gainetik anitz sofrituz eta frangotan herioa gogoan.

Beharrik ongi inguratua zen. Hor zituena halabaina, bere ama eta ahizpa Julie, hiru urte nituelarik ezkondu zena. Baina berak dioenez, ene ukate horrek arras kraskatu zuen; halere zenbait hila-beteren buruan kanpoetako lanetan berriz hasi zen, indar eta nahikari gutiagorekin haatik.

Maiz kanpoan zelako hain segur, ez dut neure amaz orduko oroitzapen argi-argirik, baina... gure etxe gainean noiz-nahi entzuten ziren ortzi karraska ilun edo zimardika batzuren plomuan emateko parerik ez zeukan. Beharrezko zen eta oraino beharrezkoa da. Kalapitak eta oi-huak ez ditu maite; edo izatekotz beti kalapiten beldur izan da eta bere burua, hobeki errateko bere bizi guztia eskaini eta eskaintzen du, gauzak hein batetan bederen, ahal bezain ongi joan daitezten.

Gure ama da, oroz gainetik, etxeko bakearen gidari ezin aski estimatua, *"baxera hautsien"* pedaxatzaile bihotz haundikoa...

Mayi eta Beronika neure arrebeekin, ez naiz sekulan hainbat akomodatu... handiegiak ziren,... eta emeak... Anaia bat nahiko nuen... Burrukan aritzeko... Baina zer diot? Burruka ez dut maite..."

Andolin Eguzkitza

PRUDENZIO HUALDE MAIO



LUIS-LUCIEN BONAPARTE

Louis-Lucien Bonaparte printze eta euskaltzaleak garrantzi aparta du euskal hizkuntzalaritzaren historian. Napoleon I enperadorearen loba izanik, Europan eta Ameriketara barrena ibili zen kimika eta mineralogia aztertzen gaztetan, baina gero linguistikaz arduratzen hasi zen eta batez ere, euskarari buruz. Bost hizkuntzatan irakurri eta idazten zuen: frantsesez, italiaraz, ingelesez, espainolez eta euskaraz, eta beste zenbait ere ezagutzen omen

zitu. Baina euskararen mintzamolde desberdinak izan ziren, batipat, bere aztergaia. Bost bidaia egin zituen 1856. eta 1869. artean Ingalaterratik Euskal Herriara, euskalki orotako laguntzaileak hartu zituen Euskal Herrian zehar eta eskuzabalez ordainduriko itzulpenak agintzen ziki.

Agian ez genukeen Prudenzi Hualde Maio ezagutuko Louis-Lucien Bonaparte-k laguntzailatzat hartu izan ez bahu, honek eskatu izan ez balio, ez baitzukeen deus ere idatziko. Baina Prudenzi

Hualde Maio, Mariano Mendigatxa-rekin batera, printze euskarazaleak Erronkarialdean izan zuen laguntzailerik bikainena izan zen.

PRUDENZIO HUALDE MAIO

Prudenzi Hualde Mario Erronkariko ibarrean sortu zen 1823.ean Bidankoze deitzen den herriskan. Haren aita bidankoztarra zen, Fermin Hualde, eta haren ama uztarroztarra, Maria Josefa Maio. Prudenzi Hualde Maio, elizgizon ikasketak egin eta, Bidankozeko erretora izendatu zuten 1853.ean. Geroztik bere sorterrian biziko zen, herriska ttipi eta urrunaren lasaitasunean eta kanpandorrearen gerizpean. Garai hartan euskaraz mintzaten zen Erronkarialdean. Baina Prudenzi Hualde Maio hil zenean, 1879.eko Abenduaren 9an hain zuzen, jadanik susma zitekeen galbidea eta mende erdi batean iraganen da Erronkari euskalduna izatetik erdalduna izatera.

1856. eta 1869. artean L.L. Bonparte printzearekin izan zituen harremanak. Alde batetik, San Mateoren Ebanjelioa itzuli zuen Erronkariko euskarara. Itzulpen hau oraindik ez da argitaratu osorik eta Nafarroako Diputazioko artxiboan datza.


Geroago, Astete Aita-ren dotrina ere itzuli zuen erronkarierara eta L.L. Bonparte-k beste itzulpen batzuekin batera argitaratu zuen 1869.ean Londresen: "*Le petit Catéchisme espagnol du Astete en trois dialectes basques*". Hirurogeita hamalau horrialdetan zehar, aiezkeraz, zaraitzueraz eta erronkarieraz. Aiezkerara bik itzuli zuten, Pedro Jose Minondo Garraldako errientak eta Martin Elizondo Aribeko ostalariak. Zaraitzueraz Pedro Jose Sanper Eaurtako erretoreak. Eta erronkarieraz Prudenzi Hualde Maio Binkankozeko erretoreak egin zuen hain zuzen.

ERRONKARIERAREN GALERA

Astete-ren kateximako "Aita Gurea" emanen dugu ondoren, Prudenzi Hualde-k itzuli zuen gisan eta ortografia gaurkoturik, erronkarieraren aidea erakusteko:

"Aita gorria, zeurietan zaudena; santifikatruk izan deila zore izena; xin bekigu zore reinua; egin deila zore borondatia, nola zeurian, kala lurrian. Emon dazkiguzu egun gore egunorozko ogia, eta parka dazkiguzu gore zorrak, guk guri zordeiner parkatan digun bikala, eta ez gidizazu eitz tentazionian erortra; baizik libra gidizazu gaxetik. Amen"

HIL ZENEZ GERO EHUN URTE (1823-1879)



Ikus daiteke esaldi hauetan zer aparta den erronkiera. Louis-Lucien Bonparte-k bere dialektoen sailkapenean zubereraren barnean sartzen zuen. Resurrección Maria Azkue euskaltzainak, aldiz, euskalki autonomotzat hartu zuen eta geroztik hala klasifikatu ohi da.

Baina Prudenzi Hualde Maio, Mariano Mendigatxa, Julian Gayarre eta enparatuok Erronkariko azken euskaldunak ziren, azken mohikanoen antzera. Julio Caro Baroja, Anjel Irigarai, Jose Estornes Lasa, Jose Maria Sanchez Carrión eta beste aztertu izan dute Erronkariko euskalkiaren galera, zelan galdu zen belaunaldi batetik bestera, alegia. Hizkuntzaren aldaketa Erronkarin txit azkar gertatu zen, XIX eta XX. mendeen arteko gurutzean erdaldundu baitzen ibar guztia. Erronkariko artzainek Erribera eta Aragoa aldean iragaiten omen zuten negua eta gizon hauek ziratekeen batipat erdararen sartzaileak. Duela hamarren bat urte hil ziren Erronkariko azken euskaldunak, andreak, atsoak. Gaur egun erlikia bat baino ez da Erronkariko "uskara" ohia, euskararik apartena zena.

Joseba Sarrionandia

ARZATZAK ETA OTSUA

Mariano Mendigatxa

Axuri saldo batarik zuatzan bi arzatz ezkapatruk ardietra, usi batan igartiari, erkin zitzebein otso bat, eta erran zabein:
 - erremediorik bage biar daizeid xan barta.
 Arzatzak honen entzutiari, asi zren naxarrez eta llantoka erraiten zabein, batak:
 - eitz nazak niri;
 berziak;
 - ez nazak niri xan.
 Otsuak konsentitruk xa, asealdi baten artra etarik, erran zabein:
 - ixilztei, trata zazei bien artian zoin biar tzein izan.
 Bertan tratatu zein arzatzek, eta erran zabein otsuari:
 - yi egonadi kemen ikurik; gu ixaren gutuk yire bi altetarik, bapana giauren altetik; atziriten gutuk amabi urratssez kantik, arrankaten gutuk beinkoan, eta lein eltan gren a yiri tokatra, eitzen gutuk libre.
 - onki -erran zabein otsuak-, bai a izan deila bertan.
 Jesusian egin zein arzatzek azionia; las-

terrian, biak eltu zren beinkoan; en tokatiar otsuari ezkapatu zitzaizkan tripak giltzurinatarik eta kostilla guziak baratut zitzazkan tortilla batian. Bitorrez arzatzek modo konez erran zabein otsuari:

- mertejede kaur egin daiguk yik guri; egin nai ionaren paku konserba zak gutaz asetako ganiua, berriz el gitian artio salutatra.
- Sartu zabein sudurretarik bapanak uzker bana, eta gero fan zren beren bide zameinz.

AHARIAK ETA OTSOA

Bildots saldo batetik zihoazen bi ahari ezkapaturik ardietara, baso batean iragaitan, irten (ilki) zitzaizen otso bat, eta esan zien:
 - erremediorik gabe behar dizuet (zaituztet) jan bata.
 Ahariak hau (honen) entzutean, hasi ziren nigarrez eta malkoz esaten zioten,
 batak:
 - utz nazak ni;
 besteak:
 - ez nazak ni jan.
 Otsuak, kontsentiturik ja(danik) aseal-

di bat hartzera haietarik, esan zien:

- ixil zaitetzte, trata ezazue bien artean zein behar duzuen izan (zuetarik zein behar duen izan).
- Bertan tratatu zuten ahariak, eta esan zioten otsoari:
 - hi egon hadi hemen geldirik; gu ezarriko(ren) gaituk hire bi aldeetarik, bakoitza geure aldetik; atzeratuko gaituk hamabi urratsez handik, arrankatuko(ren) gaituk behingoan, eta lehen heltzen garena (dena) hi(ri) tokatzera, utziko(ren) gaituk libre.
 - Ongi -esan zien otsoak-, baina izan dadila bertan.
 Jesusean egin zuten ahariak a(h) zioa; lasterlean, heldu ziren behingoan; haien tokatzear, otsoari ezkapatu zitzaizkion tripak giltzurrunetatik eta kostilla guziak geratu zitzaizkion tortilla batean. Garaitiaz ahariak modu hontaz esan zioten otsoari:
 - mesede hau egin diguk hik guri; egin nahi huenaren pagu(tan) kontserba ezak gutaz asetzeko ganua (gogoa), berriz hel gaitezen arte(ino) salutatzera.
 Sartu zioten sudurretatik bakoitzak uzker bana, eta gero joan ziren zeramaten beren bidetik.

OFICIO DE SEMANA SANTA
RUBERT DE VENTOS
KAIROS argitaletxea

Rubert de Ventós, 1939.ean jaio zen Bartzelonan. Filosofiaeko doktorea bera, estetikaren katedratikoa da, eta J.L. Arangurenen ikaslea. Estetikaz eta gizarteaz arduraturik beti, bere obra saioz hornitzen da, artez, hirigintzaz etab. Pentsalari sakona, bere idazlanek harritzen gaituzte jagoten dituzten jakintasunez eta erudikzioz. "Teoria de la sensibilidad", "El arte ensimismado", "Las utopías sensuales de nuestro tiempo", "Teoría y sociedad", "Moral y nueva cultura", "Ensayos sobre el desorden" dira bere lan hospetsuenak. Filosofo berekoia, mundu sentsiblerantz abiatzen da bere saioetan. Egin dituen libururen batzu, beharrezkoak dira gaurko artea eta sentsibilitatea konprenitzeko.

Aipatzen dugun liburuska (katalanez idatzirik, orijinalean, Jordi Llorent-ek egina dugu itzulpena) ordea, ez da saio filosofiko edo estetikari buruzkoa. "Textu hau, beste bat egiten nabilela egina dago. Ostiral arte, eskuetan dudan liburaren hirugarren kapituluari lan egiten ari nintzela pentsatzen nuen, eta hauk -liburutxo hau- bazterreko ohar pertsonalak baino ez zirela, liburutik urruntzeko idatzita. Landua ez dagoen liburu bat da, sortua baizik, dolu gabe, gurari gabe".

"Baina orain ba dakit, jazotzen zaidana idazle bihurtzen banaiz, idazten dudana jazoko zaidala. Egiazko lanera itzuli beharko dut, liburu hau bere bitsa baino izan dadin nahibadut".

Honela diosku epilogoan, liburu barneak ezkututzen duena adierazteko. Pentsaerak, asmoak, lasai irakurtzeko, idazlariaren ofizioari buruz, pentsaerari buruz, sendimenduei buruz. Benetan horritxo horien irakurketa, dohain bat da. Hona hemen batto: "Inoiz ez naiz atomatu, benetan tiratzen eta ukitzen nauenari buruz idaztea. Ene sendimenduak, ene liburuen zioa eta motorra izan dira, baina ez bere objektua. Ba, sendimenduak pribatuak bihurtu zirenetik, ba dirudi ezin dela haiei buruz mintzatu intimatastean haino. Beste zer bat izaten da, amodioa, Jainko bat zenean, uhin eta haizetatik sortzen zenean. Orduan, Alkman amodioari buruz ahal zen mintzatu:

"Afroditak bidalirik, amoriozko euria jausten da nire gainera, ene bihotza ur dadin"

LIBURU BERRIAK

FUROR Y MISTERIO
RENE CHAR
VISOR BILDUMA
MADRIL

Alberto Corazonek, bere Visor bilduman, Char-en liburu hau argitaratu du. Char, 1907.ean jaioa, frantziar poesiaren gailur bat du. Bere hasierak poesia surrealistaz eta Bretonen taldearekin bete zituen, Arsenal 1929.ean, Artine hurrengo urtean, "L'action de la justice est éternité" 1931.ean, "Poemes militante" 1932.ean, "Moulin premier" 1936.ean eta "Placard pour un chemin ecoliers" 1937.ean argitaratzen.

II guda mundialen zehar "nazi"-en aurka, "maquis"-en izan zen militantea gerrillero talde baten ofiziala bihurturik. Guda zela eta borrokatzen zuen bitartean, hospetsuak diren "Feuillets Dhynnos" idatzi zituen. Geroago, jarraitzen zaigu idazten eta 1948.ean "Fureur et Mistere" hau argitaratzen du, egun arte gelditu gabe, poesia serioa eta sakon bat eginez: 1950.ean "Les Matinaux", urte bi geroago, "La pardi et la prairie"; "Poemes de deux annes" 1957.ean; urte berberean, "La Bibliothèque est en feu"; 1960.ean, "Au-dessus du vent"; 1964.ean, "Commune presence" eta 1965.ean, "L'age cassante", eta hemengo hau garrantzitsuenak aipatzeko.

RUBERT
DE
VENTÓS
OFICIO DE
SEMANA SANTA

editorial **Kairos**

CHAR-EN POESIA

Char, frantziar poesiaren klasiko bat da gaur egun, aintzingoardiaren partaide bat izan arren eta surrealismo zirkingunean sarturik egon arren. Zirkingune berrien sortzaile bat izanez, bere iturriak, joan zen mendekoan aurki ditzakegu xehekiago, frantziar poesia sinbolistan eta hiru handi horien artean oro baino lehen: Beaudelaire, Mallarmé eta Rimbaud.

Lehenengoarengandik, grina eta desesperantza onartzen ditu, nahiz eta bere jita berokoia izan. Gizonaren baldintza dolukorra, adimenaren zer gaindikor bat bezala izanez, baina Baudelaireren damuetan erori gabe, baretsuagoa, objektiboagoa ikusten baitu giza izakia, ez barruko drama izugarritzkoa bezala, kanpoko lekuko bailitzen baizik.

Naturari hurbiltzen zaio, ezkortasun objektibo batez minduta, baina lurrari kontsola dezan eskatu barik.

Mallarméarengandik, formaren arazoa onhartzeko du, bere une estetikoan aplikatuz, izpiritu moderno eta berriarekin. Pertsonalki eta jareginik ikusia, Charrek, poema kanpotik dakusa ertzak eta neurriak kontuan edukiz, "silex landua bezala". Horretaz hitzak doidoiak erabiltzen ditu eta René Menard-ek esana, "poemarako ez du poema egiten duen hitza bilatzen, predestinatua dagoen hitza baizik".

Ez du, Mallarméren gisara, liburuak mundu osorako balio dezan idazten, liburuak, mundu osorako obra formal perpekziozkoa izan dadin, munduaren ordezkaria izan dadin. Charrek bizirako laguntzaile bat nahi du liburuak eta munduak berez duen zentzua alda ez dezan.

Rimbaud-arengandik, poemaren oldarra, ahalmen argigarria eta fede izugarria onartzen ditu, eta poesiarako balio duten baliabide bi jinak, ukiturik gabekoak, hots: "idaztea, ikaraldi argikorra izan dadila eta arima konformaezin baten jauzi hori egiteko prest egon beharrek. Baita ere, natura adoratzeko, sekretuen ama bezala".

Elementu klasiko horik, bere lumaz mugikorrek bihurtzen dira eta lehenengo jaiocera Surrealismoaren eskutik izango zuten. Zirkingune hori zela eta, Eluard beste poeta ezagutu eta maitatu zuen, lagun handiak bihurtuz.

Esan dezakegu, olerkari biek bide antzerakoak aukeratu zituztela poemagintza arloan. Eluard-ek, gizonaren patua eder-

LIBURU BERRIAK



tu eta dotoretu nahi zuen. Char-ek ostera, gizonaren baldintza zaurgarria erakusten digu, bakartatean irabazia den itxaropena, edertasuna bakarrik justifikatzen duena.

Char-entzat, gizonak lurrarekin duen ituna salbagarria da, "ez dugu ahaztu behar daukagun naturaren zera", eta biziaren alde eragiten duen giza izpiritua: "Izpiritua berriz ereiten duenean, zaintzen duenean, bertan jaiotzen naiz ni", "Herriaren haurtzarora hasten denean neuk maitatzen dut".

Gizonaren betiko arriskua aipatzen digu Char-ek, naturak eta sakaratua den zerak laguntzen duten giza nortasun parrakorra.

Bere poemak irakurtzerakoan, nork jakin ikusiko ote dugun amusek diona: "berak oraindik heldu ez diren egunsentiak iragartzen ditu".

Jon Sendagorta

IKUSKA SAILA, ERREALITATE

Gaur egun euskal zinemaz abstraktuki mintzatzeak tinta gehiegi gastatzea suposa dezake, oraindik gure amets guztiak errealitate bihurtu gabe baitaude.

Donostiako Zinemaldian izan diren euskal filmeak ikusi ondoren, ene ustez pauso handiena eta sakonena IKUSKA saila dela esan dezaket, eta ez sari bat jaso duelako bakarrik, Antton Ezeiza eta beste kideak egiten ari diren lanak azpi-egitura bat suposatzen duelako baizik.

Hau da euskal arlo gehienetan falta den zerbait eta garbi dago aurrera ez direla joango egitura ekonomiko sendo bat lortu arte. Produkzio eta laborategi mailan ba dakigu dirua non dagoen eta triste izango litzateke "El Proceso de Burgos" bezalako zenbait filme kanpoko produktoreek egin beharra, hemen egiruarik ez dagoelako. Arazo hau ez da, kasu honetan, euskara eta zinemagileen arazo bat bakarrik, euskal gizartearena baizik, euskara eta euskal kultura salbatu nahi badiugu.

(Artikulu honen helburua ez da, bati-pat, soluziobideak nondik etorriko ote diren esatea, baina zoritxarrez, askotan aipatu beharrekoa dugu Euskadin dauden erakundeek arazo hau bereganatu arte).

"Bertan" taldeak "Erreferenduma", "Ikastola" eta "Gernika" egin ondoren, eta Antton Merikaetxebarria zuzendaria izanez, "Bilbo" laburmetraia egin du. Denok dakizuenez, filme honek aurtengo Donostiako Zinemaldian Urrezko Kontxa bat lortu du. Dударik gabe zaila da Bilboko hirigintzaren problematika 12 minututan aztertzea eta horregatik agian batzuei gutxi eta ez oso sakona irudituko zaie filme hau, baina, ene ustez, arazoa filme horren jarraipenean datza. Txiripaz sortu al da ala euskal zinema bide bat aurkitzen ari da errealitate bat izateko?

Dena dela, ez dut ahalmen hau pasatzen utziko, zenbait gauza aipatu gabe, laburmetraia honi buruz bati-pat.

— Zorionez euskal filmeen musikari dagokionez, ipini behar zaien doinuak ez duela nahi eta nahiez Guridi, Mikel Laboa edo txalapartarena izan behar garbi ikusi dute, eta A. Larrauri eta Holsten musika jarri diote "Bilbo" filmeari, eta horregatik ez du ezer galdu, alderantziz baizik.

— Xabier Agirresaroberen argazki-lana erabat aipatzekoa da, Bilboko mamia primeran lortu baitu, eta jakin izan dugunez, ez zen oso erraza izan.

Dirudienez, hilabete honetan, euskal komunikabideei buruz egin duten IKUSKA 4-gnaren aurkezpena izango da, eta horregatik interesantea iruditu zait Koldo

— Koldo, sei liburu idatzi ondoren, beste esperientzia berri batetan sartu zara. Zergatik IKUSKA sailean?

— Beno, oker ez banago bost liburu argitaratu ditut orain arte. Ez dira liburu mardulak ez garrantzitsuak, baina gauden bezala gaudela ba da zerbait. Ba, niri ez didate sekulan elkar hizketarik egin, eta orain egin behar didazuna zinemaz omen da, baina nik ez dut filmerik argitaratu. Ez dut ulertzen ongi. Neure buruaz diodan hau anekdota hutsa litzateke nirea baino kasu areagorik ez balego. Uste dut Urkizu, Haranburu, eta Saizarbitoria eta beste asko ere hor daudela, esateko asko dutenak, belaunaldi klabe batetakoak, ez prentsan eta ez irratian inoiz gonbidatuak. Ramonen kasua, adibidez, ekojontantea da, urtean behin. Irratitara deitzen zioten elbarritasun zerebrulari buruz iharduteko, eta Kaixo, zer moduz, ondo eta hi. Eta elkar hizketarik egin baldin badiote azken bolada honetan, "politikan sartu delako" izan da. Hauk ez dira gertakari isladatuak, hortxe dugu Bernardo Atxaga alegia, Arestiz geroztik sortu dut poeta bakarra. Eta Aresti bera, zenbat aldiz mintzatu zitzaigun "zuzenean"? Euskal prentsarenak ez du erremediorik.

Harira bueltatuz: orain oroitzen naiz duela zazpiren bat urte elkar hizketa labur bat egin zidatela Zeruko Argian, eta zer nolako txorradak esan nituen ere ederki gogoratzen naiz. Gazteen literatura sari bat irabazi nuelako izan zen, baina harez geroztik egin ditudan lanen eskatasuna kontutan harturik ezerk ez digu pentsarazten zinemazkoak hobegoak izan litezkeenik, beraz ez nuke zergatik elkar hizketarik egin behar. Ironia bat: elkar hizketa hura zeuk egin zenidan, baina inor ez dadila enteria pasaitarrak garela, kale berean eta aurrez aurre bizi garela.

Zinemarena berria dut medio bezala, ez zerbait narratzea den aldetik, orain, zergatik, zergatik sartu naizen abentura honetan, egia esan, ez dakit. Antton Ezeizak eta biok ba genuen lagun amankomun bat, eta honek ezaguterazi gintuen elkar, Anttonen bueltan, orain hiru urte edo. Anttonek Euskadin iharduteko irrikia zekarren, eta zenbait jende bildu zuen BERTAN izeneko taldean, eta hortxe, Ikasten.

— Zer aportatzen dio zinemak zu egiten ari zaren lanari literatur mailan eta zer literaturak zinemari?

— Ez espresabide batean ez bestean dudana konpromisoa da bien arteko harreman dialektikorik posibilitatze adinakoa.



Koldo Izagirre

Izagirrerengana joatea, bere esperientzia hori jasotzearen, bera izan baita laburmetraia honen zuzendaria, nahiz lan osoa talde mailan eraman.

(Anton Ezeizak koordinatzen duen taldearen ideiak norbaitek ezagutu nahi badiu, Zeruko Argia, 841gn. zenbakia kontseilatzen diogu, hortan taldea osatzen dutenekin elkar hizketa bat baitator).

SENDO BAT EUSKAL ZINEMAN

ko projektu iraunkorrak behar dira, "filmea"ren gainera "zinemagintza" batetara joko dutenak, umildatez. Uste dut bide horretatik bakarrik lor daitekeela "bertakoan oinarritutako unibertsaltasun" behin eta berriz aipatutako hori.

— Azken hilabeteetan 5gn. IKUSKA prestatu eta nolabait zuzendu duzu. Zer ikuspegitik aztertu dituzue euskal komunikabideak (IKUSKA horren gaia) eta nola aurkitu duzue beren egoera?

— Bai, ongi diozu "nolabait" zuzendu dudala IKUSKA hori, dudan esperientzia ez baita ikaragarria, ezin zitekeen bestela. Gai bat proposatu zidaten, elebitasunarena, gidoi edo hari bat prestatu nuen eta taldeak onartu. Zuzendaritza eskaini zidan Ezeizak; eskerdun natzaio. Ilusioz egin dut lana, eta denek lagundu naute. Ez da hau, esaterako, Berasategiren kasua, erdibedutantea den arren, marrazki animatuak egin baititu lehenik, eta ez nolana hikoak gainera. Honetaz ere euskal kazetariak jai, noski.

Elebitasunaren gaia ez du inork behar bezala aztertu, eta ez nuen nik egingo, are gutxiago hamar minututan. Nolabaiteko umore batez tratatu dut, zenbait datu emanaz aldi berean. Komunikabideek euskarari damaioten tratamendua kabuendioska hastekoa da. Punto.

— Inork ez du telebistaren garrantzia ukatzen, batipat euskara eta euskal kultura salbatu nahi baditugu. Zer espero genezake edoeta zerbait itxaron dezakegu bere gaurko egoera (politikoa ere) ikusita?

— Telebistak ez du euskara salbatuko, eta halakorik itzarotea kretinismoa hutsa da. Euskal Gobernuaren progresismoaz aritzea fikzioa da, eta ni ez naiz fidatzen erreferendu kanpaina nazkagarri batetan entzuten diren slogan nazkagarriez, baina ezker abertzalearen euskararekiko jarrera ere nazkagarria da.

Pesimismoa iraultzailea izan liteke, larritasuna eragiten duen neurrian, eta gaur eta hemen mesede baino ez digu egingo pesimismo apur batek. Garai beltzak datoz euskararentzat, militantzia ez dela beharrezkoa sinetserazi nahi digute. Nik gertutik ezagutzen dudana maila honean, hizkuntzarenean, sekulan baino militantze gehiago behar dugulako ustekoa naiz.

Agur, Koldo, eta IKUSKA 5-gnaren zain geratzen gara.

X.Portu



Elebitasunari buruzko Ikuska honen filmatzaileak EGIN-en lanean.

— Nola ikusten duzu gaur, barrundik eza-gutu ondoren, euskal zinemaren egoera?

— Euskal zinema barrena hutsa da, ez dago euskal zinematografiarik. Hemen dagoena da sekulako inflazio bat, hiru bat kritiko sortzaile banako; literaturan bezalaxe, por zierto.

— Hori ikusi ondoren, zer bide eta nondik beharko du euskal zinemak bere "topiko"-tik ateratzeko eta errealitate bat izateko?

— Ojala "topiko" asko bagenu, topikoak atzekoz aurrera jartzea izango litzateke bide bat. Euskal zinema martxan jartze-

WANTAIS AIKASU

Iturrino, Sananderen jaioa dugu, 1864. ean, bere aita euskalduna izanez eta bere ama Sananderekoa. Hamalau urte zituela Bilbora dator bizitzera, urte berberean pintatzen hasi, Elviro Gonzalez bere osabak irakasle papera eginez, musikalari, pintatzaile eta olerkaria baitzen.

FRANCISCO ITURRINO



Bilbon, MUN erakustaretoan, Iturrinoren erakusketa bat dugu. Gertaera hau, ez zen izango hain axolagarria, pintatzaile honen margozki ezezagun batzu, ez ba-leude, zeren eta bere biziaren zati handi bat Parisen bizi baitzuen eta orain ari gara oraindino bere obra errekeratzen.

BERE BIZIA

Iturrino, Sananderen jaioa dugu, 1864. ean, bere aita euskalduna izanez eta bere ama Sananderekoa. Hamalau urte zituela Bilbora dator bizitzera, urte berberean pintatzen hasi, Elviro Gonzalez bere osabak irakasle papera eginez, musikalari, pintatzaile eta olerkaria baitzen.

Hemeretzi urterekin, Belgikara bidaltzen dute, injinadoretza ikastera, Etxebarria Entrepresaren aldia, bere aitak horlan egiten zuela eta. Mercedes Amestoy-k dioen bezala, Etxebarria entpresariaren adiskidetasunaz, Bilboko, Madriliko eta Sevillako gizarte garai eta aristokratara ezagutu zuen.

Bruselan urte batzu igaro eta gero, Parisera abiatzen da, Injinadoretzazko ikerketak edo estudioak lagatzen eta pinturara sakonki dedikatzen.

1898.ean, Salamanka zirkin eginik, "Las Charras" eta "Mujeres a caballo" margozkiak pintatzen ditu.

1901.ean Parisen erakusketa bat egiten du, Pablo Picassorekin batera, lagun handiak baitziren beren bizian zehar, gero-go ikusiko dugun bezala. Urte berberetan, Bilbon Losadak antolatzen zituen arte

modernoko erakusketetara Iturrinok ere bidaltzen ditu bere obrak. Pixkat lehentxoago, 1899.ean, Evenopoel pintoreak Iturrino erretratatu zuen Clichy Bulebard-ean, gero koadro hospetsua izan den "Espainola Parisen", hona ekarri duguna.

1902.ean, Sevillan zabaltzen du estudioa, Zuloagaren alboan, bere "Andalusak" pintatzen, argia eta margoz estalirik.

Bilbon erakusketa asko egin zituen urte haietan, bidaia eta Parisen egindako geraldiekin nahastuz. Honela, bere obra erakutsi zuen, "Albiako Eskoletan", Bilboko "Club de Regatas"-en, etab.

Urte hoietan esan dezakegu, Andalusiari pintatzen duela, Sevillan eta Cordo-

ban, baita Parisenre, hango giro artistikoa eta intelektualean hondoratzen, eta Bilbon egiten bere erakusketak, Pariseko aintzinguardiaren ezagumena Espainiara honela ezartzen.

1906.ean, Motrikun, zabaltzen du estudio bat, non eta bere arbasoen etxean.

1907.ean Vollard Galerian beste erakusketa zabaldu zuen. 1909.ean, Matisse-rekin pintatzen du Sevillan geraldia bat zela eta. Hurrengo urtean 6. rte modernoko erakusketa dela eta, han erakutsi zituen: "Las Sevillanas", "Salamanquinos", "Feria", "Romeria Andaluza" etab., eta lehengo aldiz, aguafueteak eta obra grafikoak: "La merienda", "Cerrado de toros" eta "Tentadero". Koadro horien zatirik handiena Bilboko museoa datza.

1914.ean, gudak Parisetik kanporatzen du. 1915.ean Madrilin "Exposicion de Artistas Vascos" zegoen eta Iturrinok are-

GAIK ARTEA GAIK ARTEA GAIK ARTEA GAIK



espresibitatea hain gogorra izanez, azpiko egitura sendoa ezkututzen digu; hau da, marrazkia eta konposaketa. Iturrinorengan, Matisserengan bezala, koadroaren eta leku plastikoaren ordenazko ardura eta egituraren lan sakona dugu. Konposaketa arras landua. Marrazkia, irudiaren eta espazio plastikoaren domeinua da. Margoak marrazkia betetzen du, baina "a posteriori", ehunaren banaketa, margoa jartzeko lekua gertatuz.

Guttitan izan dugu, konturatze hori onhartua, baina, ene ustez, eta adiskidetasun handia Matisserekin izanez, ikusi behar genuke Iturrinoren eta frantses "faubiste" horren pintaeren aldibertasuna. Marrazki eta margoaren artean ditugun harremanak. Iturrinok, ehun zuriaren gainean marrazki konplikatua, bihurria, ia barrokoa eskaintzen zuen, geroago, betirik izateko, margoazko pintzelada zakar eta latzez.

Bai eta ere, Matisseren margo lehuna, laua izan eta Iturrinorena beti bolumen bilatzailea.

"Andalusak, Sevillanak" agertzen diren margoazki handietam eta museoan dagoen "Zaldi taldea" koadroetan ikus dezakegu, bolumenaren ardura hori. Cezanne-rengan bolumenak gauza guztien egitura moldatzen zuen, eta koadroak, ehun laua izan arren hirugarren dimentsio hori nahi zuen agerterazi. Iturrinorengan ez. Iturrinorengan bolumena agertzen zaigu margoaren bidetik bakarrikan. Margoari plastizitate gehiago emateko, harreman lauak ezarri ordez.

Margo bizi horrek ez du galtzen bere freskotasuna, marrazkien mugak barruan aurkitu arren.

Paisaia ttipietan margoa deihadar hutsa da. Antza, formato ttipi horren gainean jareginagoa topatu zuen bere burua gure Iturrinok. Margoazki handietan ordea, margoa ez da hain bortxazkoa, zuri margoan erabiltzen baitzuen.

Egia da, beste aldetik ere, pintatutako gaiak edo "temak" arras monotonoak iduritzen zaizkigu: Andalus jantzitako emakumeen tadeak edo biluziak, bere obra grafikoan berberak. Baina egia da gai horiek ematen ziotela behar zuen "leku plastikoa" margoaren amets argitsuasmatzeko.

Beti bezala, esan beharra dago, kanpoan izan zela hemen baino maitatuagoa eta preziatuagoa. Izan zuen axola ez da arbuagarria. 1901.ean Picassorekin erakutsi zuenean bere obra, Vollard-enean, oraindino "Faubistek" behin ere ez zuten erakutsi obrarik, hots Iturrino eta pintaera horren ordezkarri bezala onhartzen badugu aintzinguardia hutsa izango zen bera garai horretan.

Baita ere, Francisco Alcantara Madrilko "El Sol" egunkariaren kritikalarientzako Iturrino Espainiako pintura modernoaren aurrendari handi bat izan zen.

Jon Sendagorta



hiltzen den urtean.

1958.ean Euskal Gobernuak, Iturrinok egindako 58 plantzak, hots, obra grafikoa argitaratzen ditu. 1964.ean, bere mendehurrena zelakotz, ospatzen da gertaera hori Madrilan, Bilbon eta Zarautzen, hainbat erakusketaren bidez.


BERE OBRA

Argia, margo hutsak, eguzkitan egindako obrak. "Oro, margoa ere, ezin da sormenezko ekintza baten ondorea baino", idatzi zuen behin Matissek, gure pintorearen laguna izan zena eta norekin bidaia bat egin baitzuen 1910.ean, Sevillatik eta Tangerretik. "Inpresionismoaren" oinordeko, Iturrinoren pinturak itsu bilakatzen gaitu, xoratzen gaitu. Bere margoazko

to zabala eta axolatsua izan zuen. Erakusketak errepikatzen dira Madrilan, Bilbon, eta Bartzelonan. 1922.ean gangrena batez pairatzen hanka moztzen diote. Urte horretan, etxe bat erosten du Frantzia, Cagnes sur Mer-en, non azkeneko urteak bizi zituen eta bere Pariseko lagunak, Picasso, Derain, Bonnard, Matisse etab, erakusketa batez, Iturrinoren onuraz eta bere obrak dohainik ezartzen, lagundu zioten, 1924.era arte, Iturrinio

GAIK KIROLAK GAIK KIROLAK GAIK KIROLAK

GUDU-ANTZEAK



“Ez dago munduan deusik, ura baino ahul eta malguagorik:
Eta ez dago gogorra eta gotorra errausteko ezer ekinkorragorik..
Garaitezina, pasiboa baita!

Hortaz, mundu orok daki:
Ahulak du gotorra garaitzen,
Bigunak du gogorra gainhartzen”.

Tao Teking (Lao Tse)

FILOSOFIA ETA BIZITZA (I)

Agian Lao Tseren perpausa honek gudu-antzeen funtsezko mamia, kontzeptua erakusten diguke; haien sorterroaren eta bai Ekialdean haien geroko lakapenaren ere kontzeptua berau.

Batzuren iduriko, gudu-antzeak Okinawako irlan jaiok diren arren nekazalgoaren gaineko feudal hurrupakuntzaren aurka defendamolde soil gisa; bestek uste, gudu-antzeak bizierazten dituen sorterroa (bera gabe, kale-azterretako liskarren gisakoa litzateke, Mendebaldean gertatzen den eran) Kristo jai baino urte asko lehenago sortua zen. Hots, "izpiritua ba zen materia baino askoz lehenago, eta bere oreka eta harmoniatik sortu zen gudu-antzea".

Erakusgarri gisa esan dezagun, Jigoro Kano Judoaren sortzailea izan bazen batzuzentzat, honako gudu-antze honen etorkia denboraren ilunbeetan ezkutatzeko dela eta bestelako izenek izendatu dutela, halakoak baitira YAMARA, TAIJUTSU, WAJUTSU, TORITE, KOGUSOKU, KENPO, KUMI, UTXI, XUBAKU, KOXI, NOWAKARI etabar...


Ihardumolde edo metodo hauetarik batbedera osterantzeko eskoletan irakatsia zen eta berauk, beren teknika diferentak zirela kari, elkarriz bereizten zitzaizkion.

"KONJAKU-MONOGATARI" (Kondaera zahar eta berrien liburua) delakoan YAWARA elea ageri da, Judoa ematen duten grafo batzuren ondoan.

Hontaz bada, zer egin zuen Jigoro Kanok? Kano maisua Judo Kodokan-en (oraingo judoa) sortzailea izan zen. UE-XIBA maisua oraingo AIKIDOaren sortzailea izan zen era berean; halere, esan delako gudu-antze hau honez gero ezaguna zen DAITO-RYU izenez, eta erakuslerik haundiena XIHAN Sogaro TAKEDA maisua zen, Japoniako Iparraldeko HOKKAIDO eskualdekoa.

Oraindaino idatzitakoa oro, ahal den neurrian, bereizten ahalegintzen da gudu-antzearen sorterroa eta nolakoa den egungo egunean, eta areago sakonduz: gudu-antzea ekialdeko ala mendebaldeko pentsamoldearen petik behatzen.

"HONTAI" liburu sekretuan (bertan Juidoaren aurrengoa izan "daitekeen KITO-RYU eskolaren irakaspenak ageri dira) arazo honen filosofi harria, mamia idatzita aurkitzen da:



Le Sang, VietVo Daoren maisua

"HONTAI gorputzaren eta izpirituaren menerapena da, hots, izpirituaren lantzeko ahalmena gorputza kontrolatzen jakinez eta hontaz konturatu gabe.

Behin izpiritu egoera hau erdietsiz gero, etsiak oro meneratu, garaitu ahalko dira".

Beste arazo bat, errakuntzarako gaia ohi dena (Mendebaldean bakar-bakarrik ohi bezala), Ekialdean bizi den lagun orokin Judo, Karate, etabarren identifikatzea. Judoa, Karatea eta Mendebaldean ezagututako beste zenbait gudu-antze ekialdeko edozein laguni egozten zaizkio, txinatarra dela, japoniarra dela, indonesiarra dela, viet-namiarra dela,..., halegia.

Halere, Ekialdean ba daude makina bat herri, zeinek bere nortasuna, bizimoldea, gudu-antze bai fisiko zein izpirituala dituelarik.

Artikulu hontan arituko gara gudu-antzeotarik zenbaitetaz, baina ilunbetan dirauten arren, horregatik axola gutiago ez dutenez.

Gudu-antze ezezagunagoetan barna ibiltze txiki hontan, XORINJI KENPOa aipatuz has gaitezke.

XORINJI KENPOa, SODOXIN haren sortzailea delarik, kontsidera genezake Japoniako anaia baztertutzat, nahiz eta haren entzutea, herri harrera, goraka doan.

XORINJI KENPOa, oraingo metodo, burrukamolde bezala, duela 28 urte abantxu sortu zen, munduko bigarren guduaren ondoan, eta bere teknika ZENaren sakonerapenean oinarritzen da eta bere ihardupena TXINATAR KARATE, AIKIDO eta JUDO gudu-antzeen nahastean.

Aren bizi-denbora apurra gorabehera (aldaera gaurkotu gisa), teknika berrien ikaskuntza eta azterketa hain dira aurreragarri, non egungo egunean 625 teknika baitaude, guziak elkarretarik arras bereziak.

Beste gudu-antze bat are ezezagunagoa eta gaizkiago ulertua THAI Boxeo dugu, zenbaitentzat bere jatorrizko izena TXUAN-FA-THAI duelarik.

THAI estatu gudukaria izan zen 1432.ean Khmer enperadoregoaren eror-goaren erantzulaa eta ondoko mendeetan zehar, Singapore eta txinatar mugaren arteko, eta IRAWADY hibaiko bokaletik MEKONG hibaiko beherainoko lurraldearen menperatzailea.

Burrukaldiak laualdeko sokaz hesitu baten barnean egiten dira, mendebaldeko boxeoan bezala, eta bestalde, boxeorako eskularruak ere erabiltzen dira. Burrukaldiok erritual batekin eta jatorriz indiarra den oititze batekin hasten dira.

THAI iboxeoaren jatorria gudu-antzeen historigileen buru-hauskarria da; batzu-

GAIAK KIROLAK GAIAK KIROLAK GAIAK KIROLAK



"Indartsu izatea baliagarri izateko, eskua altzairuzko eta bihotza samur"



ren ustez, THAI boxeoa OKINAWAKO KARATEaren aurrendaria bada (teoria hau ez da guziz funts gabea), beste batzuren iduriko, THAI boxeoa TXINATAR KARATETIK sortua da (THAILANDIAN bi milioi lagun inguruko txinatar komunitatea bizi da, gudu-antze sekretu sekretuak (TXUAN FA) gordetzen dituztelarik). Azkeneko teoria hau, THAI boxeoren jatorrizko izenean (TXUAN FA THAI) funtsatua da.

Ene kutsunetarikoa VIET VO DAO da, bere izen jatorrizkoa "VO TA" ("gure militar antzea") delarik.

HUNE FOUNG enperadorea, duela Kristo aurreko 2.875 urtekoa, ofizialki VIET VO DAO ren sortzaile gisa emana izan zen. TRANen (K.a.1225-1440 arteko) dinastiaren eta QUANG TRUNG

TRUNG (K.a. 1788.a) enperadorearen pean VIET VO DAOren ihardunketa gazteentzat obligagarria zen.

Frantses kolonikuntzarekin batera, VIET VO DAO zeharo ahantzita zegoen. 1938.ean, oso sekretuki, NGUYEN LOK maisua larnan hasi zen hura aztertzen, VIET VO DAOren tekniken sailkatzeko eta egituratzeko asmoz; VO VI NAM izenarekin, zazpi urte geroago viet-namiar herriaren berjabetzaren unean, SAIGONen sortu zuen VIET VO DAO-VO VNAM gazteriaren mugimendua.

1960.ean, LOK maisua hiltzerakoan SAIGONen, haren ikaslerik zaharren eta kutunena, LE SANG maisua, haren lanari jarraiki zitzaion.

VIEN VO DAOren filosofiari buruz, hara zer dioskun besteren artean: "VIET

VO DAOren bidearen haunditasuna, ihardule bakoitza gizonen egiazko bide bilakarazten duena da, ez etsaietarik etsairik indartuena". VIET VO DAO SINH izateak zera esan nahi du: giza halabeharraren jakitun, kontzient izatea, besteekiko eta norberekiko erantzunkizuna jasotzeko gai izatea.

"NGUYEN LY CUONG NHU PHOITRINE": Indartsu izatea baliagarri izateko, eskua altzairuzko eta bihotza samur". VIET VO DAOren gogoa iraupena eta apaltasuna dira.

VIET VO DAO viet vo dao ere, erresistentziaren gudukarientzat derrigorrezkoa zen. "Pertsonalki" ezagutzeko parada ukan zuten, bai horixe.

X.G.

EUSKARAZ ZER? HONA GURE HITZA: EGUNORO ERABILTZEA.



© GRUPO

Egin dezagun egunkari elebidun bat, gure kale, eskola eta lantegietan euskara egunoro erabil-araz dezan.

Geure hizkuntza baitugu gure herri bizitzaren erakusle bakarra.

Iritsi baita euskara geure etxe-zulotik ateratzeko garaia. Guztiok hartu behar dugu esku, Egin geurea, elebiduna, geuk nahi dugun hori izan dedin.

Elkargoan eginez. Guztiok finantziatuz.

Egin dezagun geure egunkari berri eta egi-zalea.

Harpide zaitetz eta partzuer-kontu bat eskura, kupoi hau bete eta ORAIN, S.A.-ri bidaliz: ORAIN, S.A.

Apartado 1567. Bilbao.

Apartado 444. Pamplona.

Apartado 1397. San Sebastián.

Apartado 420. Vitoria.

EGIN egunkariaren finantziaketan esku hartu nahi dut:

Urteko harpidetzaren bidez.

(2.000 a 100.000.) _____ pezetako partzuer-kontuaren bidez.

Ordaintzeko era

Giro n.º _____ Cuenta corriente n.º _____

Bankoa _____

Deitura _____

Helbidea _____ Telefonoa _____

Hiria _____ Probintzia _____

egin

HAGAMOS EGIN. EGIN DEZAGUN EGIN.

Hitzen eremu semantikoa hartuz, sarri euskarak eta erdarak banaketa—modu desberdinak dituzte.

Kontzeptu edo esangura desberdinak adierazteko, euskarak hitz bakar bat eta erdarak bizpahiru edo asko dituenan, euskara hizkuntza pobrea dela entzun behar izaten dugu. Alderantziz ere gertatzen da, ordea; eta orduan, euskara zaillegia dela, batekin nahikoa dugula eta antzeko eritziak pairatu behar izaten ditugu. Noski, zail- edo erraztasuna neurtzeko eredu eta unitatetzat erdara hartzen delako gertatzen da hori. Eta batzuk erdararen eredu normalizatura makur erazi nahi izaten gaituzte. Adibide asko jar daitezke honetaz, baina bat aipatzearren euskal familiaren egiturarena hartuko nuke: erdaldunek arraro eta nahiko ilogikotzat daukate **neba/anaia, ahizpa/arreba** banaketa.

Eremu semantikoen banaketa—modu desberdinen kausaz, itzulpenak egitean oso kontuz ibili behar izaten da, hankasartzerik ez edukitzeko. Eta ez itzulpenetan soilik! Erdararen presio soziologiko eta linguistikoa neurritz kanpokoak izanik, euskarak interferentzia handiak pairatzen ditu. Eta ia konturatu gabe, euskal idazleak kutsatu egiten dira erdarakadak erabiliz. Erdarakadak era desberdinetakoak izan daitezke: hitzezkoak, joskerazkoak eta hitzen eremu semantikoen aldaketazkoak. Azken hau gutxi aipatu ohi dira, baina hala ere, sarri, euskararen zehaztasun eta nortasunari begira, oso galgarri izan ditezke.

Artikulu honetan horrelako kasu bat agertuko dut. Adibide modura aukeratu dut, baina edozertara ere, irakurlea laster konturatu da, arlo honetan behin baino gehiagotan nahaste izugarriak gertatzen direla. Horregatik, hain zuzen, arazoaren kontzientzia edukitzea komeni da.

Erdarazko POR euskaraz nola eman

Erdal preposizio honekin kontzeptu desberdin asko adieraz daitezke. Horrela erdaratik euskararako itzulpenak egitean, zalantzak agertzen dira ugari. Eskemati-koki esanik, gutxienez ondoko eratan itzul daiteke euskarara.

1.—**(ren) gatik**. Atzizki honen bidez egintza, gertakari edo asmo baten kausa adierazten da. —**ren kausaz** delakoren baliokidetzat har dezakegu. Adibidez
arrazoi horregatik haserretu nintzen

2.—**an zehar**. Erdarazko “por, a través de” ideia azaltzeko

herrian zehar ibili gara arratsalde osoan

Ohar bat egin nahi nuke atzizki honi buruz. Idazle batzuk —**tik zehar** erabil-

ERDARAREKIKO ZENBAIT INTERFERENTZIA

tzen dute. Kintanaren hiztegia ere horrela dator. Ene ustez, hala ere, —**an zehar zuzenago da, hor zehar, kalean go-ra, kalean behera** den bezala; eta zaharren artean beti horrela entzun izan dut gainera.

3.—**tik**. Dirudienez, forma hau aurrekoaren interferentziaz ari da, eta, ene ustez, erdarakada baten ondorio da. —**tik zehar** formaren laburpena dela esango nuke, nahi eta hori frogatu egin beharko litzatekeen. Eta hori uste dut, nola erabiltzen den kontutan hartuz:

*hortik ibili da
kaletik dabil*

Hau da, **ibili** aditzarekin. Zer esanik ez, guztiz bestela gertatzen da **etorri** aditzarekin lotzean:

*hortik etorri da
kaletik dator*

Irakurleak erraz susmatuko du bi kontzeptu horien arteko desberdintasuna.

4.—**tzat**. Atzizki hau ere **por** delakoaren ordaina izan daiteke. Hara:
egokitzen jotzen du

5.—Puntu honetan, antzeko hiru forma desberdin aipatuko ditugu. Itxuraz berdinak izan arren, oso gauza desberdinak adierazteko erabiltzen direla ikusiko dugu.

—**k egina**. Nork egina den adierazteko
Irudi hau Jonen egina da

—**gatik egina**. Kasu honetan noren edo zeren kausaz egina izan den edo eta norekiko atxekimenduz.

Jonengatik egina izan da

—**z egina**. Zeren bidez egin den edo holako zerbait

*kasualitatez egin da
kasualitatez gertatu da*

6.—**z**. Atzizki honek aurreko puntuko azken kasuko funtzioaz gain, bestelakoak ere bete ditzake, beti ere erdaraz **por** itzultzen delarik
itsasoz joan da

7.—**bider**. Matematikaren munduan saturik, biderkaketak izendatzeko erabiltzen den ikurra adierazteko balio du:

$$5 \times 7 = 35$$

bost bider zazpi berdin hogeitamabost

8.—**per**. Zenbait kasu berezitan latin—hitz hau erabiltzea komeni dela uste dut. Kintanaren ere gauza bera proposatzen du bere hiztegia

* *Musikan: 5/8: bost per zortzi konpasa*

* *Geometrian (5m x 8m) bost per zortzi metroko laukia*

Ene ustez kasu hauetan arazoa ez da **bider** formarekin konpontzen.

9.—**hala**—. Idazle batzuk honelakoak h gabe idazten dituzte. Interjekzio bezala, harridurazko hitzak sortzeko edo birao egiteko aurritzki bezala erabiltzen da. Hainbeste daude holakoak.

halfede, haljaina, halazanko, haladzipo, hala Jupiter! hala Thor!...

Dirudienez, horretarako batzu **halajainko** hitzetik sortuak dira. Baina jainkoaren izena ez aipatzearren deformazio fonetikoak sortu dira
halajainko halajaina, halazanko, haladzipo

Antzerako gauza bat gertatu da erdaraz ere, **mekasuen** sos edo **mekasuen zotz** esatean.

Multzo honetakoa da, halaber, **halegia** hitza.

Azken oharra

Segur asko, bestelako itzulpen batzu ere egongo dira. Baina arazoaren ideia bat egiteko nahikoa dela uste dut.

Nik neuk, euskarazko lanen zuzenketan aritzean, zenbait idazleren idazkietan behin eta berriro nahasturik aurkitu ditut forma horik. Horregatik, horrelakoak erabiltzean ardura pixka bat eduki behar dela uste dut. Ea ba, praktikarekin zehaztasunean eta euskalduntasunean irabazten dugun!

J.R. Etxebarria

Unibertsitateko mintegietan ikasle eta irakasle askoren euskarazko lanak ikusteko eta zuzentzeko aukera eduki dudalarik, behin eta berriro agertu zait menpeko esaldi batzuren joskeraren problema. Zenbat aldiz ez ote ditudan joskera—problema berberak zuzendu! Eta noski, ekinez, azkenean ikasi egiten da.

Euskal idazleak formatzeko, zuzentzaile onak behar ditugu. Artikulua idatzi ondoren, horrelako zuzentzaile batengana joatea komeni da, estilozko hutsuneak zuzentzerako. Baina idazleak ikusi egin behar ditu bere akatsak, eta azaldu egin behar zaio akats horien iturburua eta horik gainditzeko bidea. Horrela, idazleak hobetu eta zehatzago egiten du bere idazmodua. Hitz batez, ongi idazten ikasten du.

Nik neuk, niri dagokidanez, oso pozik gogoratzen ditut, hainbat urtetan zehar Imanol Berriatuarekin eginiko zuzenketak. Artikulua idatzi ondoren, berarengana joaten nintzen, eta ni aurrean nengoela, zuzendu egiten zidan lana, zuzenketa bakoitzaren zergatikoa azalduz. Zinez aitortzen dut, zuzentze—saio horietan ikasi dudala euskara gehien. Ba, hari horretatik esan behar dut, orain oso zuzenketa gutxi susmatzen dudala lanetan, eta hori oso kaltegarri gerta daitekeela euskararen batasunerako. Azken urte honetako artikulu eta liburuak ikusiz, arduragabezia nabaritzen da joskera eta ortografiatzeko puntuetan. Eta arazo horrek oso kezkatu nauka.

Horrela, ba, artikulu honetan arau simple, labor eta errazak eman nahi ditut, idazketaren zuzenketarako lagungarri gerta daitezkeen asmoz. Norberaren autozuzenketarako izan daitezkeen nahi nuke, zeren eta, ene ustez, ongi idazten ikastea, horixe baita, norberaren idatziak zuzentzen ikastea, hots, autozuzentzen jakitea.

Erdara/euskara interferentzia

Sarritan, arazoaren sorrera, erdararekin dugun interferentzia izaten da, S. Altubek aspaldi adierazi zuen bezala. Bai! Euskaldunok gutxiegi arduratzen gara egiturazko erdarakadetaz; eta, ostera, gehiegi, itxurazko erdarakadetaz, hitzenetaz halegia.

Menpeko esaldi batzuren kasuan gertatzen zaiguna, horixe da prezeki. Erdarak modu bat du menpeko esaldiak egiteko eta euskarak, bestelakoa. Erdararen interferentzia, eta presioa neurritz kanpoko izatean, euskara erdal eradura eramateko indarra egiten ari da. Prozesu honi aurka egiten ez bazaio, euskara erdaldundu egingo da bere barnean, erdarakadatu.

Azalpena pixka bat konkretatzeko, bi eratako esaldiak aztertuko ditugu: baldintzazkoak eta ezezko menpekoak.

ZENBAIT MENPEKO ESALDIEN JOSKERA

OHARRA:

Gramatikazko lan hau aurrekoan argitaratu genuen artikulu bera da. Konposatze akatsez beterik eta moldiztegi horrialde oso bat galduta, ulertezina gertatzen zen. Hau dela eta, pre-miazkotzat jo dugu berrargitaratzea.

Baldintzazkoak

Dakigunez, erdaraz, esaldi hauen hasieran **si** hitza jartzen da, baldintza datorrela abisatuz edo. Euskaraz ordea, ez da zertan abisatu behar —zenbait kasutan **baldin** delakoa erabiltzen da horretarako, baina ez da beharrezkoa, —eta **ba** -aditz- aurrikia esaldiaren azkenean jarri ohi da. Honela hain zuzen.

- * *Sasoiz egingo balu, ongi aterako litzateke.*
- * *Jonek astakeria hori esan bazuen, beste erremediorik ez zuelako izan zen.*

Hala ere, eradararen interferentziagatik eta erdaraz euskaraz baino hobeki alfabetaturik gaudenez, batek baino gehiagok honela idazten du:

- * *Egingo balu sasoiz, ongi aterako litzateke.*
- * *Jonek esan bazuen astakeria hori, beste erremediorik ez zuelako izan zen.*

Oker hau, zenbat eta esaldia luzeagoa izan, nabarmenkiago agertzen da. Horrelako kasuetarako araua oso erraza da: "Baldintzazko esaldietan **ba** + **aditza** terminoa esaldiaren azken muturrean jartzea komeni da; ondoren, koma bat dator gehienetan".

Ezezko menpekoak

Ezezko menpekoekin antzerako problema daukagu. Baina, dirudienez, kasu honetan interferentziaren iturburua bestelakoa da: ezezko esaldi nagusiekiko desberdintasuna hain zuzen ere. Azaldu egingo dugu zertxobait arazoa.

Hara! Aditz perifrastikoaren kasuan ordena-aldaketa gertatzen da esaldiaren baiezkotik ezezkorako transformazioa egitean

egin du <u>egin du</u>	ez du egin <u>ez du egin</u>
1 2	2 1

Ordena—aldaketa honen eraginez, ezezkotasuna menpeko esaldietan agertzean, idazle askok esaldi nagusietako ordena hori errespetatzeko joera dute, era honetako gauzak idatziz:

*ez duenez egin
ez badu egin
ez duelako egin*

Ostera, dirudienez, askoz ere egokiagoa da, hurrengo era honetan ematea

*egin ez duenez,
egin ez badu,
egin ez duelako.*

Arazo honetaz Altubek oso azalpen interesgarria eman zuen "Erderismos" liburuan (ikus § 66). Argi dago, ba, kontuz ibili behar dela.

Hala ere, ba da kasu berezi bat: —la atzikiari dagokiona hain zuzen ere. Nik neure dudak ditut, baina kasu honetan forma aldatua onartu behar dela uste dut. Hots:

ez duela egin

Beraz, laburturik, era honetako buruzko araua. —ordena dela eta —hurrengo koadroan bildurik dagoena da:

Baiezkoak	Ezezkoak	
egin du egin duenez, egin duelako egin duenean, egin duelarik, egin badu, egin duela	ez du egin	egin ez duenez, egin ez duelako egin ez duenean, egin ez duelarik, egin ez badu, ez duela egin — ?

Horretaz gainera, ezezko menpekoetan aditza esaldiaren atzeko partean jartzea komeni dela dirudi. Bestalde, oso kontutan hartzeoak dira halaber, koadro barnean jarritako komak.

Azken oharrak

Dirudienez, "Erderismos" liburuak euskara mintzatua hartzen du oinarritzat, nagusi. Egia esan, euskara idatziak bestelako problemak ere ba ditu. Bestalde, gaur eguneko kultur munduan esaldi luzeak ere erabiltzen dira eta kasu hauetan tratamendu berezia eman behar izaten zaio textuari. Baina esaldien luze—laburtasunari buruz hurrengo batetan arituko gara.

Artikulu honetako arauak zerbait erlatibo dira. Horik erabiltzean esaldia gehiegi gogortzen ez bada, aurrera! Baina esaldia gogorregi gertatzen bada, gozotasun eta adigarritasunaren mesedetan lasai apur daitezke.

J.R. Etxebarria

HUMOREA

JOXEAPAREN ATERALDIAK

Solastun ederra da Joxepa... Baina gauzak luparekin ikusten ditu...

OILO ONA

Joxeparen oiloak kaminoan ibiltzen dira. Beti uretan dabilen txarroa hautsi egiten omen da...

—Gure etxean zen oilorik hoberena kamioiak harripatu du. Egunean gutxienez hiru edo lau arraultze erruten zituen!

GAZTARIK EZIN ATERA MAHAIRA

—Gure etxean ez daiteke gaztarik atera mahaira: osoa atera eta erdia jaten dute; eta erdia atera eta osoa jaten dute!

LUR JO

—Saldubasok lur jo duela entzun dut. Eta egia izanen da: gaur aita-semeak lahar hostoak jaten ikusi ditut Zabaleneko atarian!

ZEKORRA GAIZKITU

—Zekorra gaizkitu zen eta hamar mila pezeta gastatu ditugu botiketean. Eta berak mila duro ez ditu balio!

HERNIA LUZEA

—Gure Pello urgunka dabil. Sukaldetik gelara joateko ordu bat behar du.

Izanez ere hernia belauneraino luzatua dauka!

ESANA IZANEN DA

MIREN.— Vallejuelok lapurretan egin omen du fabrikatik. Nagusiaren isilean makinak saldu eta alde egin omen du.

ARANTXA.— Zaude isilik, emakumea! Hori esana izanen da.

MIREN.— Bai, esana izanen da. Bestela ez nuen entzunen!

PRAXKUREN GEZURRAK

Kolorea asko mudatu gabe esaten ditu gezurrak Praxkuk. "Hau ni hementxe nagoen bezalaxe da egia". Gezurra pentsatu eta berak ere sinistu egiten du.

BEHIAK TITIA MOZTU

Praxkuk behiak larrera bidaltzen zituen Haritz-a. Egun batean behia titi bat moztuta etorri zen etxera.

—Neri gogoak eman: Berueteko mugako alanbreetan trabatuta moztu izanen zuela. Joaten naiz eta hantxe aurkitu nuen titia alanbretik zintzilik. Etxera ekarri, jostorratza eta hariarekin ahal nuen bezala josi eta ederki itsatsi zitzaion. Gero zer da eta... beste tietatik baino esne gehiago zuen erantsitakotik!



ALBAITERU "ONA"

Herriarentzat lanean ari ziren mendian. Joxe, herrigizona, lantokiko nagusia zen. Joxek zekorra gaizki zeukan. Praxku erdi albaiterua da eta esan zion saiatuko zela zekorra bizkortzen. Besteak baino lehentxeago gelditu ziren lanetik Joxe eta Praxku eta etorri ziren etxera. Praxkuk zekorra ikusi zuen eta erremedioa eman zion. Ederki afaldu zuten eta Praxku esan zion berak zainduko zuela zekorra gauean. Nahiako ardoa eta kafearekin sukaldean utzi zuen Praxku nagusiak eta joan zen ohera. Hurrengo egunean jaiki zen nagusia:

—Egun on, Praxku.

—Baita zuri ere.

—Nola dago zekorra, Praxku?

—Ni baino hobeki.

Joan ziren biak ikuilura eta hantxe zegoen zekorra besoa luzatuta hila!

EGON PIXKA BAT...

Patxi kanpoan larrutan ari eta joan da bere andrearengana eta hasi zaio larrua jo nahiean (itxura egiteko) baina ezin:

PATXI.— Egon pixka bat...

ANDREA.— Ai Patxi, Patxi... Kanpoan jaisten den behiak etxean esne gutxi!

HIZTEGIA

solastun - *hablista, orador.*

lur jo - *arruinarse.*

lahar - *zarza, planta rastrera.*

urgunka - *cojeando.*

isilean - *a occultas, en secreto.*

Bizkaiak beti izango du bere Kutxa



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza handi bat



Gure herriaren nahi eta izpirituaren arauera dihardugu

Horrexegatik, hain zuzen, Gipuzkoako 100.000 familiatik gora gutaz fidatzen dira.

Gipuzkoan bizi diren familia guzientzat, soluziobide aproposak sortzen ditugu beren Aurrezki, Kreditu, premiak... etab. konpontzeko.

Gure herriaren nahi eta izpirituarekin zerikusi estua duten hainbat ekintza ere burutzen dugu. Horrela, gure lurralde

honetako kultur, folklore eta kirol adierazpenetan parte hartzen dugu; euskal kulturaren aldeko ekintzak bultzatu eta babesten ditugu (liburu argitalpenak, literatur txapelketak, margolaritza txapelketak, kontzertuak eta koralak, hitzaldiak eta kultur asteak...) eta Euskal

Hiztegi Arauemailearen argitalpena bezelako proiektu garrantzitsuak burutzen ditugu.



**LA CAJA TRABAJA POR GUIPUZCOA
Y PARA LOS GUIPUZCOANOS.**

